

ANAITASUNA

209 zenb.

1971. apirilaren 15 ekoa

Jardin Txikerra, 1 BILBAO-12
Tel. 43 18 37



SEXOAREN ASKATASUNA, TIRANIA BERRIA

Gizarteko arazoei begirada arin bat emanez gero, ba dirudi, zenbait* gauzatan, hara eta hona, alde batetik bestera, estremoetatik gabiltzala gizonok, geldiune egoki bat aurkitu ezinik, pendulo baten antzera. Politikatik hasi (ezkertiarrek eta eskuindarrak) eta modetatik pasatuz («maxi» eta «mini»), edonon ikusten ditugu «penduloaren lege» honen seinaleak. Ohiturei dagokien arloan batez ere, aldaketa nabarmenak ikusi ahal izan ditugu geure egunotan. Ohitura aldaketa hori, pentsakera aldaketarekin batera doa, eta gure eguneroko bizitza osoan agertzen da: baina, inon baino gehiago, sexo arazoetan.

Lehenago oskurantismo eta «dena da bekatu» hartatik, oraingo erotizazio izugarriara, «dena da ona» honetara pasatu gara. Hippiak eta beste honelako taldeek, amodio librea, sexoaren askatasuna predikatzen dute, munduko gaitz guztien sendagailu bezala.

Baina ez ote gara lakio* batetik irten, beste baten menpean jausteko*?

Horixe dio, behinik behin, Derek Wright profesoreak, Ingalaterran, Leicesterko Unibertsitatean irakasle ari* denak, eta lester agertuko den «The Psychology of Moral Behaviour» liburuaren egileak.

Sexoaren ideologia berriak funts* gutiko Iruditzen zaizkio autoreari. Haize garbiak, gorputz ekinaldiak eta janari ugariak bezala, sexoak ere on egiten dau, muga nahiko zabal baten barruan jokatuz gero.

Baina ideologia hauen barranean, txarto jarritako metafora bat dago, lehendik harturikoa hain zuzen, hots*, sexoa indar biologiko bat dela, nortasun gabeko energia bat, naturalezaren bultzada bat, gizonak nahi edo ez HOR dagoena.

Sexoaren kontzeptzio honek justifikatzen zituen gure espaldiko ahaleginak, indar hori astintzeko eta menperatzeko. Gure abeltasunaren* zati bat izanik, ukatu beharrekoa zen, arimaren gardentasunerako*.

Gaurko sexologoek, ostera*, premisa beretik ateratzen dute, naturalezaren kontrakoa dela, harreman sexualik ez edukitzea; harreman hoik* galeratzen dituen gizartea, perbertituta, bihurrituta dagoela; eta ez jarduteak dakarrela, sexoa beste bide batzuetatik lasaitzea, bide ilun eta okerretatik, alegia*.

Baina gizartearen jarduketa sexualari buruz azken hamar urteotan egin* azterketak estudiatuz gero, argi agertzen da nozio horren desegokitasuna.

Posibilitaterik zuzenenean, sexualtasuna ohiturazko zerbait dake*, zaletasun edo atxikimendu bat.

Honela pentsatzen du behintzat Wright profesoreak.

Honek ez du esan nahi, faktore biologikoek sexualtasuna eragiten ez dutenik; baina bai, sexualtasun horri bide ematea, landua edo kultibatua dela sail handi batean. Hezierako* esperientziek zerikusi handia dute hemen. Eta gure gaurko gizarte erotizatuak ere bai.

Horretaz*, geure buruak deskondizona genitzake, gurari sexualak gutituz. Erljio tradizioek egin dute hori sarritan. Bai eta egiten da ere, norbait lan kreatzaile batean saiatzan denean.

Sexologoek sexoaren askatasuna bilatzeko berotzen gaituzte; baina askatasuna, gauza bat egiteko edo EZ egiteko ahalmena da.

Bakarrik begiratuz, sexoak ez daduka esannahirik; «cul-de-sac» bat bezala da. Baina beraren benetako esannahia, geure nortasun osoaren barruan hartzen dugunean ikusten dugu, nortasun horren osagarri bat baino ez baita.

Sexoaren benetako askatasuna, sexoa nor bere izate osoagaz bateratzen dugunean datorkigu, eta sexozko ideologiak, pedanteria hutsak bezala, aldamenean uzten ditugunean.

PEREZ BILBAO

B E R M E O

Bokartaren kostera

Hasi dira bokartetan* gure arraintzaleak, abendutik honako gel-diune derrigorrezkoari amaiera emanez. Martxoaren lehenengo egunotan, arraintza eskasa izan da. Etorri dan bokart apurra, kontsumorako, freskotan jateko saldu da dana. Kontserba fabrikak ez dira oraindino erosten hasi; bokart hau ez ei da egokia, salazioan ipintzeko.

Aspaldiko urteetan, kostera ez da benetan hasi apirilarte. Apirilean eta maiatzean izaten dira arraintzarik ugariak eta kontserbarako hoberenak.

Aurten ikaraz dabilta arraintzaleak, Frantziako 6 milako «muga» dala ta.

Abrako Euskal Kanta Lehiaketa

Abenduaren 27an Algortako «Gurea» zinetokian egiteko zan «III Festival de la Canción del Abra»rako sei finalistetarik hiru, bermeotarrak dira: Josu Zabalondo, Lupe Fernández eta Anatare-Amaia bikotea. Jaialdi hori otsailaren* 28ra atzeratu zan; eta orain, berriz ere, ez dakigu noiz arte.

«Correo Antoniano» aldizkaria

Ba dogu, Bermeon, multikopiaz egiten dan hilabeteroko bikain bat. «Correo Antoniano» izena daroa, eta, fraile frantziskanoen babesean, «Juventud Antoniana»ko gazteek prestatzen dabe.

Hamalau orritan, otsaileko numeroak hainbat irakurgarri dakarsku: elkarteko zereginen berri, hiru-lau artikulu interesgarri, nobela labor bat, herriko albisteak eta, honez gainera, poesiak, kantak, barregarriak.

Jarraiko albisteak bertotik hartuak dira. Baina, aurrera joan baino lehenago, aldizkariari berari buruz gura nituke berbatxo bi esan: Atsegin handiz irakurtzen dira haren orriak. Gure herriko neska-mutilen kezak eta ardurak bizi bizi agertzen dira bertan, eta oso aipagarria da gazteon lana.

Akats bat bakarrik: hamalau orrien artean, orri erdi bakarrik euskeraz! Akats bakarra, baina lodiegia bermeotarrantzat. Gazteak, aurrera bildur barik, ea oker hori zuzentzen dozuen hurrengo numeroetan.

«Eleizalde» irakas kooperatiba

Basaurin, Gueñizen, Luxuan, etc. dagozenen antzera, Bermeon ere «Cooperativa de Enseñanza» dalako bat eratu da, «Eleizalde» izeneko.

Jon Gofinondo batzordeko* lehendakariaren deklarazio batzuk agertzen dira, lehen aipatu dogun aldizkarian:

«Ikastolatik sortu zan, kooperatiba hau egiteko asmoa. Urte ta erdi daroagu bermeotar gurasoek, proiektua aurrera eroateko ahalginitan. Bigarren mailako kolejio bat gura geunke jaso, umetxoak hasi eta batxileratua amaitu artekoa. Kolejio horrek 1.000 ikasle-erentzako kapaz izan beharko leuke. Bermeon ez dago behar dan beste eskolarik, eta gu hutsune hori betetzera irten gara. Kolejio honen irakasleak eta finantzamentu guztia, bazkide diren gurasoek kontrolatuko dabe. Gaur arte ehun bazkide gara; eta batu dogun dirua, kolejioa jasotzeko lurrak erosteko izango da. Berrehun bazkidegaz gura dogu hasi».

«Agur» aldizkaria

Bilbon argitaratzen dan euskerazko «Agur» hilabeterokoak, «Correo Antoniano»k dinoanez, ez ei* dauka irauteko behar dan aina* harpidedunik. «Correo Antoniano»k dei bat egiten deutse herriko gazteei, aldizkari larrituari laguntzeko, abonatu berriak eginez.

«Bermeotarrak» itsasontzia

Martxoaren 12an, Bilboko «Marítima de Axpe» astilerotan, beste atunzale konjeladore berri bat botatua izan da Bermeorako. Ontziaren izena «Bermeotarrak» da, eta 800 tonelada daukaz. Motorra, 1.800 HP-koa.

Ontzi honen jabeek, orain dala urte bi, beste atunzale konjeladore berdin bat armatu eben, «Bermeotarrak» izen berorregaz. Baina Cubako gobernuak erosi eutsen. Cubanoek «Jagua» izena jarri eutsen, eta bermeotarrei eskatu arraintzan irakasteko. Zeregin horretan dabil Afrikako uretan Patxiko Olabarria, patroil kapaza, «Jagua»ko Cubatarrei arraintzan irakasten, hiru-lau bermeotar arraintzaleren laguntziaz.

A.P.B.

A R R A T I A

Aurreragoko artikulu batean esaten genduan, gaur ere beste zerbait esango dogu Arratiako alfabetatze kanpainaz.

Beste eskualde* batzuetan legez*, hemen ere lan apur bat egiten hasi gara arazo honetan.

Kanpaina hau hasita dagozen herriak, honeek dira: Zeanuri (hiru talde), Areatza* (talde bat), Lemona (umeentzako talde bat), eta Bedia (talde bi, bata nagusientzat eta bestea umetxoentzat).

Behin batean hasteko diren herriak: Igorre, San Kristobal, Dima eta Arantzazu. Arteagako berririk ez daukagu.

Hauxe da, gutxi gorabehera, Arratiako alfabetatze kanpainaren gaurko egoera.

JULEN

Igorreko* herrian, Arratia guztirako Instituto bat egitea erabaki da. Antza denez, Aiantamentu bat baino gehiago ibili izan da, bakoitzak bere lurretan egin guran; baina, zikin edo garbi, Igorretarrek irabazi dabe.

Amaitzeko gutxi falta da, eta, dinoenez, datorren urtean egongo ei* da eskolak emateko antzean.

Txarrena (eta ez naiz ni dudan dagozenen artean bakarra, beste guraso asko ere antzera dagoz eta) zera da: ez daki inork artez, ea datorren urtean zabalduko dan ala ez, batxilerrako zenbat urte emango diren, ea plan zaharragaz ala berriagaz izango dan... Ez dakigu ezertxo ere ez. Eta uste dot, zeredozer jakiteko sasoa ba dala, betiko legez*, azkenean, arineketan eta hestu, umeak non sartu ez dakigularik ibili gura ez badogu.

ZAMAKOLATARRA

E L I Z O N D O

Sokatira txapelketa Baztanen

Baztan eskualdeko* udalek* babesturik eta «C.D.Baztanés» dalakoak eratuta, «I Campeonato de soka-tira interpueblos del Valle de Baztán» izeneko txapelketa ospatu izan da, joan dan martxoaren 19an, Baztan haraneko* Elizondon. Epaimahaiko, Eusebio Izeta, Dionisio Unanue, Jesus Jaimerena eta Jose Maria Apezetxea izan ziren.

Jokoa ikustera, Euskal Herriko herri askotatik batu zan jendea, eta, Elizondoko alkatearekin batera, Espainiako eta Estatu Batuetako zenbait* kapitan abiadore ere etorri ziren.

Lehendabizi, Erratzutarrak eta Abiazioek jokatu eben. Erratzuko 8 gizonek 811 kilo zituen, eta Abiazioek 665. Astunenek irabazi eben.

Bigarrenik, Amaiutarrak Elizondo B-koei irabazi eutsen. Orozkoarrek Amerikanoei. Almandoz eta Elizondo A-koena izan zan hestuna: talde bakoitzak buelta batean irabazi eban. Desenpatean, minutu bat eta 13 segundotan ekin ondoren, Elizondo A-k irabazi eban. Bigarren saioari ekin aurretik, Azpilkuetako dantzariak agertu ziren, Alicia Sanz gidari zala.

Taldeak jarraiko era honetan geratu ziren: Irabazle, Elizondo A. Talderik zaharrena, Elizondo A (285 urte). Astunena, Erratzutarrak (811 kilo). Sokatiralaririk astunena, Patxi Elizetxe (21 urte eta 114 kilo). Talderik gazteena, abiazioko soldaduak (165 urte). Makalena, Amerikanoak.

T O L O S A

Bi euskaldun jator joan zaizkigu egun hauetan: Guillermo Liza-so eta Ramón Moraiz. Errenderiako txistularia izana, lehendabizikoa; eta «Escolanía Felipe Gorriti» deritzan abeslari taldeko «baju» ospetsua Ramón. Beronek zenbat aldiz jarri ote zeukun hestu hestu bihotza, San Joanetako zortzikoa abestuz.

Oraindino bere ahaleginak ikastolaren alde zuzendu baditu ere, «Lizardi» taldea jo ta ke dabil, euskal kultura aurreratzeko asmoz. Ikusiko dugu, ekintzak asmoak bezain luzeak diren.

Partidua jokatu aurretik, egunkariak irakurtzean, gure Arruabarrenak aise* galduko zuela pentsatzen genuen. Baina zer pasatu da? Frontoian 22 tanto eginez irabazten direla partidua, noski*.

Zumardi haundiko platano arbolei adarrak moztan ari zaizkie. Garaia denez gero, ez da hauxe berri harrigarria noski; baina, moztan ari diren modua ikusi gero, ba dirudi, zuhaitzen forma erabat* aldatu nahi dutela, itzal gehiago eman dezaten. Hau ote da, aspaldi ahaztutako Zumardi haundiaren berritzearen hasiera?

Aurten ez omen dute «Gure Txokoa» elkartekoek, asiloaren alde dirua ateratzearen antolatzen zuten zeren festa preparatuko, Pazko egunean. Honelako festa bat eratzek lan handia eta arriku asko omen du; eta nahiago dute, dirua sozioen artean biltzea, asiloko monjatxoei emateko. Datorren urtean garaiz hasi eta ikusiko omen* dute zer egin.

J. J. IRAETA

S O N D I K A

Entzun dogunez, gure herrian, umeentzako Ikastola bat zabalteko asmotan dabilta. Oraindik ez dago segurutasunik; baina atsegin eta itxaropen handia izan dogu albiste honekin. Ikastolak beharrezkoak direla uste dogu, herri guztietan. Horregatik, arazo honi geure laguntza guztia eman behar deusagu. Ea noiz konturatzaren garen euskeraren garrantziaz. Hizkuntza barik, non herria?

Sondikan, beste herri askotan legez*, neskak futbolean hasi dira; eta gogor dabilta, gure eritziz. Eurontzat eta bai mutilentzat ere, premiazkoa dala uste dogu, zelai eder bat egitea. Larregi* eskatzea ote da? Izan ere, gure neskak oso txarto dabilta, ze, jokatzen dabenean, beti beste herrietara joan behar dabe ta. Noizko, bada, landa edo zelai hori? Noiz ikusiko ditugu herriko neskak etxean jokatzen?

Euskerazko meza, Jainkoari eskerrak, orain ederto dago. Gofezko 11 eta erdietan ematen da. Berrero dinogu, oso ederto dagoela. Baina beste zerbait ez dago hain ondo.

Meza euskeraz bada, zergatik abestiak latinez? Oso ederto egongo lizateke, abestiak ere euskeraz egingo balira.

Danon borondate onagaz eta apurka apurka, ea euskerazko meza eder bat egiten dogun.

ROSI IBARRONDO

ORAINDIK GEHIAGO

R. G. durangarrak egin daukun eskutitzak, lehenagotik nerabiltzan ideia batzuk paperetan jartzera bultzatu nau. Egia da. Uste dut, beste euskal agerkarietan ere gauza bera edo antzerakoa gertatzen dela. Hemen, behintzat, holaxe da: geure aldizkariko artikuluen ideologia, prestutasun eta gaurkotasanari batez ere bagagozkie, hitz batean izenda genezake haien nota: eskasak. Eta gure aldizkariko artikuluen askoren pobrezia ez uste gero zentsuraren errua denik, ez eta hamabosterokoa izatearena. Ez. Gure artikuluen askoren eskasia, merketasun eta gonoregabetasuna*, batipat*, gure errua da. Esplika gaitzen.

Helburu ta jokabiderik eza

Ene ustez, Euskal Herriko pentsalariak —eta idazleak ere pentsalariak dira— akats edo koska latz batek menperatzen ditu, eta gaitu. Ez helbururik ez jokabide argi ta taxaturik ez edukitzean datza* menperaturik egote hori. Idazle batek burubide argiak ukan* behar ditu. Argi jakin behar du, bere idazlanekin zer bilatzen duen, eta lortu nahi duen hori nola ardiets* lezakeen. Aipatutako ideia biok idazleagan ondo argi ez badaude, orduan haren idazlanetan nahasketa ta desegokitasun haundi bat sortzen da. Idazlan hoiak, jakina, ezin dute ezer frutu iraunkorrik eman irakurleengan.

Bestalde, bekatu edo hutsune berdina somatzen da, euskal politikaren landan jokatzeko dutenen artean; eta horrek ere ba du bere eragina idazlearen zelaian. Euskal jendartearen*, bereziki zenbait* idazle ta politikarierengan, arazo guztien erabaki osoak argi ta garbi daudela uste da. Zenbait prediku ta programatan, ideia ederrak, bedeinkatuak eta zuzenak iragartzen dira; baina da dirudi, pulpituetatik apaizek egindako predikuak direla: ederregiak direlako, ez ditu inork sinesten; beren zuzentasunagatik ez dute posibilitasunik; eta, bedeinkatuegiak direlako, ba dirudi, ez direla hain bedeinkatua ez den mundu honetarako.

Ba dakit, gure arteko santu asko nik esandakoengatik haserre jarriko direla. Baina, bilatzen dena argi jartzen ez bada, egiten diren gauza asko aizezko bueltak dira. Bilatzen den hori lortzeko era posible batzuk seinatzen ez badira, ametsetan jardutea da; eta, era berean, biderik badago, bide hori benetan eta egunero egiten ez saiatzeak antzu* bihurtzen ditu helburuak.

Habilidaderik eza

Aurreko puntu horrekin batera, ba da beste gaixo mota bat ere gure artean. Hainbat idazle ezagutzen ditut geure Euskal Herri honetan. Baina, dozena erdi bat kenduta, idazle guztion jakinduria zigarro paper baten zuriunea betetzako aina* ez da.

Bizi dugun egoera garrantz honetan murgildurik, jendeak bere kexak, nahiak eta usteak azaldu nahi ditu, bidezko den bezala. Orduan, kexatzeko motiboak dituela oharturik, ba doa fusila dispartzera, edonoz, edonon eta edonoren kontra, hala egiteko esku-bide osoa dituela ta. Eta kexak dituen edonon hasten da bereak eta bi esaten, bere burua hain nekaturik ikusita, edozertarako eskubidea balu bezala.

Baina gauza bat da, nork bere burua modu txarrean ikustea; eta beste bat, buru horren alde jokatzeko bide egokiak zabalzea. Gu gehienon jakituria zigarro paper baten barruan sartzen delarik, oso indar makalak ditugu, geure eskubideak defenditzeko, nahiz eta munduko sakratuenak izan. Hau honela izanik, geure buruetan ba ditugu geuretzako arazoak, baina ez besteentzat. Besteek ez dute, besterik gabe, gure arazoien indarra ikusten: frogatu* egin behar zaizkie, eta hori ez da hain erraz egiten.

Jainkoaren Lana-koek, «honek honela izan behar du» esan gabe, nahi duten hori lan setatsu* baten ondoren lortuta gero, «hau honela da» diote, jendea aho bete hagin eta amorru makurrez utziz.

Moralidaderik eza

Gauza bat egin ahal izateko, moral bat behar da. Egin behar dena egiteko arazoak eta, batez ere, nahi bizi bat. Norberaren erruz zerbait egiteke* gelditzen denean, negar egitea eta erruak inori botatzea alferrikakoa da, haurtzaroko negarrak gogoratzeko izan ezik.

ANAITASUNAREN kasuan, ba ditugu eragozpen batzuk. Zenbait*, gairitu ezinak; beste zenbait, asko, gairitu litezkeenak.

Euskal hiztunak guti direlarik, eta hiztun hoiaren artean ikasiak edo alfabetatuak gutiago direlarik, gaitz da harpidedun edo ira-

kurle asko izatea. Harpidedunak edo irakurleak guti direlarik, zail da errentabilitate aberatsa izatea. Dirurik ez badago —inongo eta inolako erakundek*, ez dirujabek, ez alderdik, ez elizak, ez gobernu babesten ez gaituela— ezin dugu profesionalismorik lortu (eta profesional bihurtu behar genukeela konturatzeko aina* listoak ba gara). Profesionalik ez dugula, eta idazleak(?), nahi ta nahi ez(?), beren lan partikularrek ANAITASUNAREN ardurak baino gehiago lotzen dituztelarik, ezin da eskritore indartsurik lortu. Ez eta programazio biribil, koordinatu eta iraunkorrik egin. Dirurik ez dagoelarik, ezin da ANAITASUNA asteroko eta, gutiago, eguneroko bihurtu.

Idazleok, berriz, hasi Euskaltzaindiaren Prentsa Bulegotik eta idazlerik gazte eta berrieneraino, ez dakigu patxadaz idazten; eta, ortografiatzeko eta osterantzeko* huts asko egiten ditugunez gero, gure zuzentzaileen lana astundu eta, gaiztoago dena, luzatu egiten da, lanak, albisteak, kronikak... zahartzetainoko.

Gauzak honela izanik, moralidade bat behar da, erresponzabilitate bat. Ximpleago esanik, lana egin behar da seriooki. Benetan buruen barreneraino sartu behar dugu —eta barka hala uste ez duzuenok— nik goian jarritako arazorik gehienak ez direla, batipat*, gurekin bat ez datozenek jarritako eragozpenen gatik, gure kontrako hoik guk uste baino geureagoak direla uste ez bada. Gurekin bat ez datozenak bistan dago gure arazoez ez direla arduratuko, eta gutiago, guk ere geure ideia eta nahiei azken sakone-rainoko ondorenak ateratzen ez badizkiegu.

Lan asko egiten ari* gara, dudarik ez; baina oraindik gehiago eskatzen da.

A. ZELAIETA

daude, dagoz
dauku, deusku, digu
diote, dinoe
dizkiegu, deutseguz

genezake, geinke
lezake, leike
litezke, leitezke
zaizkie, jakez

«Euskaldungoa»

Aldizkari honetako «Euskaldungoa» sailean agertzen diren berriak, ez dira gizon bakar batek prestatuak. Zenbait* idazlek bidaldutako berriak ere agertzen dira.

«Ez dira gureak»

Aldizkari honetan edozein artikuluren agertzeak ez dau esan nahi, ANAITASUNAREN zuzendaritzak dana hitzez hitz beretzat hartzen dauanik.

«Petronor»

Danak dakiegunez*, «Petróleos del Norte, S. A.», Petronor Izenarekin ezagutua, Somorrostroko errefineria egiten ari da, eta uda honetan Bilboko Portu Handia egiten hasiko da. Haren kapitala 3.000 milioi pezeta da, eta jarraiko modu honetara osotzen da: Gulf Oil Corporation-ek % 38, CAMPSAK % 30, Banco de Bilbao % 9, Banco de Vizcaya % 9, Río Gulf de Petróleos-ek % 5, Caja de Ahorros de Bilbao % 4,5 eta Caja de Ahorros Vizcaíno % 4,5. Haren zuzendaritza jarraiko hauxe da: Lehendakari Alvaro Delclaux, lehendakari ordeño Enrique Guzmán, bokalariak Pedro de Arístegui, Pilar Careaga, Miguel Romero, José Cristóbal, Francisco Cardenal, Fernando Rodríguez, Leonardo Amiano, Fernando Azketa, Ignacio Zumarraga, Enrique Sendagorta, Juan Miguel Villar, Manuel Ruiz de Velasco, Eduardo González eta Juan Anchia.

ANAITASUNA Bizkai

Hamabosterokoa.

Zuzendari: Anjel Zelaieta.

Zuzentzaile: Imanol Berriatua.

Idazkolaria ta banakolaria: Jardín Txikerra, 1. Bilbao (12).

Inprimatzaile: Juan José García, Joaquín Jáuregui, Jesús María Tafalla, Gabriel García eta José María Belmonte, AMADO Inprimaria, Bilbon.

Irarle: Gil Díez eta Manuel Barrera, RALI etxean, Bilbon.

XIX urtea.

D.L.: BI-1.753-1967.

Kantarien jaialdia Bergaran

Apirilaren 3an, Pantxoia ta Pello, «Itxaropen», «Zaigor», Antxon Valverde eta Iñaki Arriaran kantariak jaialdi bat eskaini izan dabe, Itziar Sagarzazu eta Jose Maria Iriondo, Loiola Herri Irratiko hizlarien gidaritzapean, Bergarako Irala zinetokian.

Gela berriak Errenderiako Ikastolan

Gipuzkoako Errenderian, «Construcciones Oyarbide» dalakoaren laguntzarekin egindako gela berriak, inauguratuak izan ziren herriko ikastolan, joan dan martxoaren 27an. 380 ikasle dabilta ikastola honetan.

«Anexa» ballet taldea Eibarren

Aspaldi honetan hainbeste zeresanik ematen dauan «Anexa» ballet taldeak ekinaldi batzuk izan ditu Eibarren, apirilaren 7 eta 8an.

«Orquesta de Cámara de San Sebastián» Mondragoen

«Orquesta de Cámara de San Sebastián» izeneko abesbatzak jardunaldi bat izan dau Mondragoen, «Gurea» zinetokian, martxoaren 28an. Jaialdi honek ez dau beste helbururik izan, «kantatu kantatzearen» baino, eta ondo kantatu ere.

Esnearen auzia

Esnearen salneurria igon izan da. Baserritarrek zerbait(?) gehiago irabaziko dabe. Alegatzen gara baserritarrakatik; baina esnearen salneurria igotea ez da, hain zuzen ere, gizartearentzako pozgarria.

«40 poemas»

«Helios» editorialak argitara eman izan dau liburu bat, «40 poemas» izenburuarekin. 40 poema horreetarik, bat dator euskeraz. Besteak, katalan, galego eta erderaz eginak dira.

«Lur» editorialaren liburuak

«Lur» editorialak liburu berri bi argitara eman berri ditu. «Lau gartzelak» deitzen da bata. Liburu honetan, Nazim Hikmet turkiar poetaren poemak datoz, Gabriel Arestik euskeraz jarriak, eta Arantza Urretavizcayaren hitzaurrearekin. Bestea «Linguistika orain arte» da, eta Xabier Kintana jaunak egin da.

«Añamendi» etxearen liburu berriak

José Acosta Montoro jaunak egin eta Erramun Muruak euskeraturik, argitara eman izan dau «Añamendi» etxeak «Asarre bi-deetan» izeneko liburua. 94 orrialde ditu teatro lan honek, eta 50 pezetatan saltzen da. Bai eta Luis Madariagaren «Pintores Vascos» izeneko liburuaren lehen atala ere argitara eman berri dau. Liburu honek 144 orrialde ditu eta 41 pintura. Jon Abad pintoreagandik hasi eta Julio Franco jaunaganarte diren artista guztiak aipatzen dira bertan.

Euskal jaia Baigorriin

Baxenabarreko Baigorriin ospatu izan da euskal kantarien jaialdi bat, apirilaren 18an. Kantu zahar eta berri abestuz, han izan dira Xabier Lete, Lurdes Iriondo, Mikel Laboa, Zabala, Eñaut, Larralde, Beñat, Borda eta Artza txalapartaria.

Euskaltzaleak gero eta gutxiago?

Behin batez, ene adiskide bat Madrilera joan zan, eta, abiatzerakoan, zera esan eustan: «Madrilera najoak, eta hango buruzagiei esan behar jeutseat, euskalzaletsaunagatik ez ikartzeko, apaizgai berririk ez dagoenez gero, berez galduko dala ta». Ene adiskidea ez da euskaltzalea.

Alfabetatzea Intxaurren

Donostiako Intxaurren deitu* auzunean, alfabetatze ekintza bat hasi da, Donostiako Alfabetatze Batzordearen gidaritzapean, martxoaren 29an. Textutzat, ANAITASUNA hartu dabe.

Alfabetatzea Lujan

Bizkaiko Lujan ere alfabetatze lanak aurrera doaz, Josu Torre gaztearen gidaritzapean. Gehienetan gertatzen dan bezala, hemen ere, jarraipena da punturik zailena, bai ikasleen aldetik eta bai irakaslearen aldetik ere. Eta alfabetatze talde bat aurrera erotzen danean, «mila legoa» ta gehiago egiten ari gara.

«Easo» ta «Oskarbi» Bilbon

Gipuzkoako «Easo» eta «Oskarbi» kantari taldeek jaialdi bat eman izan dabe Bilboko Coliseo Albia aretoan*, «subnormales» delakoan alde, apirilaren 4ean. Egun berean, Donostiako «Real Sociedad» futbol taldeak jokatu izan eban Bilboko Athletic taldearen kontra San Mames zelaian.

Entzun dogunez, «Oskarbi»koek ez dabe orain «Ez dok Amalru»koekin batera kantatzen. Izan ere, «Oskarbi» taldearen joera arnagoa da, eta esannahiaz baino gehiago moduz arduratzen da.

Muga berriak ote?

«Vida Nueva» aldizkariak aipatzen duen eliz probintzien muga berritzea, ez dakit beste lekuetan baina, hemen, aintzinako ametsa denez, arras* begi onez ikusiko genuke. Esaten du, alegia*, ondo eta bidez Gasteiz eta Bilboko elizbarrutiek Iruinera bildu beharko luketela, etnia bereko eta gizagiro berdintsuko direnez.

Eta guk, isilean edo ozenki* (har dezala bakoitzak, doakion gisan*) diogu herriaren izenean: Baionako elizbarrutia aipatzen ez badu ere, ez duzue, noski, Elizako jaun prestuok, hura bazterrera botako ala?

«Lepanto» izeneko kaleak?

Aurten lauhungarren urtebetetzea dela ta, «Lepanto» izeneko kale berriren bat bataiatzea dela bere gogoia adieraziz, gutun* bat bidali du Gipuzkoako Diputazioko lehendakariak udaletxeetara*.

Horra, historia eta toponimia, biak batera, pertsonala famatuak bakarrik ezezik, gure kulturaren aberasgarri, alajaina*!

Alfabetatze ikastaroa Beasainen

Dela hilabete batzuk agindu zen bezala, Beasaingo Alfabetatze Batzordeak ikastaro bat antolatu du. Hasiera, apirilaren 12an, ilunabarreko 8etan. Lekua, Ikastola. Egunak, astelehen, astearte* eta ostirale*. Iraupena, hilabete eta erdi bat.

Oraingoz, lehenengo maila emanen da. Hala ere, jenderik izanez gero, bigarrenkoa ere emanen lizateke. Lerro hauen bidez dei bat dagiegu herriko guraso eta gazte guztiei: bereziki* Ikastolako haurren gurasoei eta gazte kezkatuei.



PENTZUAK

Sarb-en ardurapean eratuak

VALLE DE ATXONDO (Bizkaia) - Tel. 11

**Zure etxeko behi, txahal, egazi,
ardi, koneju, nahiz txerri,
onuragarri izan ditzazun,
emaiezue Ongarri.**

ARTEA HAURREN HEZIKETAN (2)

Teknikari buruz

Pentsa dezagun, arteak ez duela haurretan* sartu behar, baizik eta haien barnetik behar duela irten. Ainitzetan* uste izaten dugu, haurrek, arte eta estetika bideetan jartzeko, asko behar dutela ikasi (pintura, teknika...) eta, noski*, delako artearen sena* irakaskintzaren bidez ardiesten* dela. Alegia*, kotsakratuak dauzen kuadroak bere begien aurrean ezarri behar dizkiogula haurrari, artea(!) zer den, memento* batetan uler dezan. Baina haurrak zer dezake ikus, bere munduarekin erlazio fisik* ere ez duen kuadro, eskultura edota teatroan? Bide hau, ez genezake esan, didaktikaren urratsetan* dagoenik, inolaz ere; baina argi ikus genezake, inposamendu bat besterik ez dela.

klarki dago, bada, haurretan, inposamendua bidegabekeria dela. Halaber*, espresio bide horren jabe ez den bitartean, bere mundutik at* ikusiko duela artea, bai eta espresiorik laudagarriena ere.

Errazonamendu berdinetik joaz, gizonak ere, bere espresioaren jabe ez deino*, edota espresioa haren barnetik irtetzen ez den bitartean, artea beti, besterena, beste ambienteetako, gizartearen beste mailetakoa bezala ikusiko du.

Espresioaren behartzea (inposamendua), gehienetan behintzat, teknika hutsak dakar berekin. Gure didaktikan, teknikaren irakaskintzak leku berezia badu, lehen aipaturikako inposamenduen bideetara erraz jo genezake. Teknikak (jeneralki erabiliaz) objektibitatea, zientifismoa eta mekanizismoa («monotonia» sentiduan ere) ditu berekin. Haiekin erabateko* diktadura ezarriaz. Konkretuki, esan ohi dugu: «Ez, gu ez gara teknikoak eta ez genezake gaurko artea uler». Espresioa, simple eta bakana (hots*, kuadro edo lanari trazendentziarik emanik gabe, bere mugetatik irten gabe) dastatzeko*, teknikoak behar dugu izan; hitza, hots, gizonaren ahoko espresio ere ulertzeko, teknikoak behar dugu izan.

Gure kontzeptu edo ideietan, artearen benetako teknikoak artista bera da. Alegia*, lanaren esannahia, trazendentzia eta sinbolismoa kapta dezakeen pertsona «dohatsua». Gu berriz inurriak gara, pertsonaia hoiek konparaturik. Ez omen* gara, gure ustez, mundu berdinetakoak. Hizkuntzarekin ere, logika honekin, hitzaren esannahi osoa, sinbolismoa eta pertsona berak hitz horrekin (bere izateari jarraituz) adierazi duena ikus dezakeen teknikoak, psikologoa da. Beraz*, teknikoak ez garenez, ez dezakegu uler ahoko espresioa. Puntu honetaraino ez gara oraino heldu; ez dut uste, helduko garenik ere. Baina tamalgarria da, nola plastika, oraindik, «dohatsuaren» eskuetan dagoen. Ambiente berezi batzuetan. Eta herrikoitasuna (arte herrikoa nahi dut aipatu) zein urrun dagoen oraindik.

Praktikan

Azter ditzagun pintur eskolak edo akademiak. Bodegoiak, bai paisajeak bai eta erretratuak ere, %99 teknika hutsa da. Beraz, % teko margina dukete*, molde eta sistemetatik irtetzeko. Hutsa.

Teknikaren beharra aztertzeke, bi motatariko teknikak ikusiko ditugu:

- Neurriak, proportzioak, estetika moldeak, ekilibrioa... Hitz batetan, akademismoak duen teknika «aberats» eta ugaria.
- Materiala erabili eta maneiatzeko teknika simple eta basikoa. Alegia, elementalismoa (zainketa, nahasketa basikoak...).

Lehenengoa uka genezake. Bigarrena, berriz, beharrezkoa zaiku. Soilki eta puntu honetan ere gehiegi sakondu gabe. Modu honetan haurrak berak eratzen ditu modeloak, bereak, bere izaerak ondo deritzen modeloak eta ez besterikakoak. Estetika aldetik ere, teknika ugariak daude. Baina zergatik ezar berez etorri behar duena, etortzerik eta lekurik badu herri barruan? Zergatik estetikara

LUJUA

Larrakoetxeko proba tokian, Sabin Latorreren omenaldia euki dogu. Sabin hau, harrijasotzailea zan; baina motorragaz istripua izan eban, eta orain ezin deutso lehengo afizioari jarraitu.

Horrexegatik eta danon estimua merezi dauan mutil jatorra dalako egin jako omenaldi hau.

Lehenengo pixu altzatzailleak, gero Idi buztarri bi, hurren harrijasotzaileak, eta azkenez ahari topeak ikusi genduzan.

Gazte honek benetan merezi eban, egin jakon guztia; baina, gure eritziz, merezi ez ebana, hauxe da: mikrofonoan egon zan euskaldun erdera-zalea. Lauzpabost berba egin zituan euskeraz, eta jendea pozarren.

Gure zorionik gartsuena, Sabin; eta ea hurrengorako beste «espiker» hobea bat topatzen dan.

ERRAMON GERRIKAGOITIA

bultza, estetikaren beharra (behar kontzientea, noski*) ez dagoen? Herbert Spencer-ek hauxe zioen: «Haurrak marrakzi* onak egiten dituela, ez da garrantzi haundikoa, berez eta benetan bere fakultateak desarrolatzen baditu».

Gai honek erabateko* planteamendua behar luke izan, eta inolaz ere bi artikulutan agerera daitekeena. Beraz, gaia urri xamar legoke, sakontasun haundiagoarekin eratua baledi.

MIKEL MENDIZABAL

daude, **dagoz**
deritzen, **deritxo**
dezagun, **daigun**
dezake, **daike**
dezan, **daian**

ditzagun, **daiguzan**
dizkiogu, **deutsaguz**
genezake, **geinke**
zaiku, **jaku**, zaigu
zioen, **inoan**

ELGOIBAR

Artikuririk onena

ANAITASUNA, 207. zenbakia.

«Ekialdeko jakinduriaren garrantzia», Joanes Zuhatsukorena. Gaia benetan interesgarria iruditzen zaiku. Ba dugu zertan sakon eta zer ikas. Hala ere, **gaur** gure eritzia besterik da:

Anarkismoak, budismoak eta hippismoak, ez dugu entzun, inongo gizarteri bide bat, soluzio bat eman dionik. Gizartearentzako soluzio bat inoiz eratu ez dutelako noski.

Asian ba dira, gosea, heriotza eta ezjakintasuna erabat* baztertu dituzten herriak; baina urteetan zehar burruka gogorrak eginez eta odol asko isuriz lortu dute. Hoiengandik ikasi eta hasi behar dugu «asiatartzen», eta ez monje budisten salmoekin.

Esperientziak eta herrien historiak agertzen dauku, ezer lortu bada, burruka bidez izan dela. Eta hori, hain zuzen, gaur egun Asian gertatzen ari da gehienbat.

Patxi Altunaren metodoa

Euskera irakasten ari* diren guztiek orain dute garaia, era berriak ikasi eta aurrera egiteko. Astelehenero etortzen da Patxi Altuna, bere **era** erakustera, arratsaldeko 7etan.

Baserritarrentzako irakastaldiak

Martxoaren 16an eman zitzaizien hasiera irakastaldi hauei. Bergarako «Extensión Agraria»-koak etortzen dira irakasle bezala. Aurtengo kurso honetan, frutaz eta frutarboletaz hitz egingo dute, «Anaitasuna»-k Urbitarten duen lekalean.

TALDEKO BESTE MARISABEL

ARAMAIONA

Zeleta jaunari hitz bi

Alegiatzen gara, Zeleta jaunari ZERUKO ARGIAren 419. zenbakian Aramaionari buruz idatzi duen artikulugatik.

Sinets ote daitekeen galdetzen dauku. Bai, sinets daiteke.

Ez dezagun pentsa, hau gure herrian bakarrik gertatu denik. Herri guztietako gaitz jenerala dela uste dugu.

Denok dakikegu*, zergatik eraldun bihurtu diren lehen euskaldun ziren herri asko eta asko.

Euskal kantariak

Martxoaren 6an, gure herrian, ikastolaren alde jaialdi bat egin zen. Kantariak, hau* izan ziren: «Oskarbi», Natxo, «Zaigor» eta Txomin. Azken orduan, espontaneo bezala, Markelek abestu zuen. Txalo asko bildu zuten kantari guztiek.

Baimena berandu iritxi* zen, eta, propaganda ezagatik, ez zen egon itxaroten zen beste jende. Gainera, Aramaionako herriak ez zuen behar bezala erantzun.

Ez dakigu zer gertatzen den gure herrian. Euskaldunak garela esaten dugu, baina gero ez dugu euskaldun bezala jokutzen.

ORIXOL

MUNITIBAR

Josebitorrenoko Xabier Ameriketara joan jaku.

Sindikato Jose Domingok eta Trokazoloko ugazaba andreak betiko agurra egin deuskue.

Azkarretako Mari Soleri eta Olosteko Jose Luiseri zorionezko bizialdia opa deutsegu, ezkondu direnez gero.

Zamorako gartzelan urte bi preso egin ondoren, Aldaolako Pasqual Intxausti itzuli jaku. Ongi etorria eta berriz hara ez itzultzea opa deusgatu.

ERRAMON GERRIKAGOITIA

CHILEKO IRAULTZA (3)

«EGIAZKO DEMOKRAZIA»

Allende Lehendakariaren eta Scherer periodistaren elkarrizketa

—Zenbaitek* esan dau, **Castrok**, bere ta beretarren ahaleginak **trabatuta** ikusirik, bere politika radikalizatu egin ebala. Zuk ere, zeure burua horretara ikusiko bazendu, gauza bera egingo zeunke?

—Nik neuk Chiletarren kontzientziari dei egingo neuskio, eta ez nintzateke geldituko, harik eta nire herritarrak euren zeregina- rekin kargutu leitezen arte. Baina galdera bat egingo deusut: Herri bati irtenbide guztiak hixten* bajakoz, herri horrek zer egin leike? Ez dauka beste aukerarik, hauxe baino: **harmak eskuan hartu**. Eta gu ere edozertarako gagoz prest.

—Zer eragozpen dozu, **Cubarekin berehalaxe*** harremanetan jartzeko?

—Ez uste, harreman horrek atzeratzen baditugu, kasketaldi bategatik danik. Erabaki hori Chileri ondo datorkion une batean hartu beharko da, eta Cubari ere noiz ondo letorkion kontuan izanik.

—Orduan, zergatik atzeratzen dituzu harremanok?

—Hori, ene erabaki bat da.

—**Jakina**. Baina horrekin ez deuskuzu ezer argitzen.

—Hara! Guk edozein gobernurekin izanen* ditugu harremanak, Chileri eta beste aldeari **premiagabeko kalterik** ez letorkioenean. Adibidez, kasu posible bat izan leiteke garrantziko operazio baten **tramitazioa**, eta exemplo honekin ez dot inor seinalatu gura. Diplomaziaren jestio batek operazioa gaizkoatuko* baleu, arrisku gehi- go barik saiatuko ginateke, eta, hori bai, politika arloan ditugun helburuei* minik egingabe.

—Uste dozu, **Chilen anaiarteko gerrarik gerta leitekenik?**

—Ez. Herriak ba dauka nahi aina* indarririk, hori ez permititze- ko. Chileko Indar Harmatuek, profesionalak direnez gero, errespetu handia deutsee Konstituzio eta Legeari. Ez dira, pretoriar guardien antzera, gizon **bakar baten** zaindaria. Azken urteotan Chileko herriak erakutsi izan dauan abertzaletasun eta gizatasunak, indartu izan dau ene pentsaera eta etorkizunean dodan uste ona. Baina, dana dala, **biolentziaren** seinaleak espantagarriak izan direnez gero, edozer gerta leiteke. Eta Schneider jeneralaren heriotzea, hau ere esan beharra dago, ez da alferrikakoa izango.

—Zer deritxazu **Amerikako nazioen arteko OEA organizazioari?**

—Organizazio horrek ez dau Latin Amerika defenditu izan. Ene ustez, gure artean halako erakunde* jator bat sortu behar lizateke, baina anai **nagusiaren** hain gerizpe haundirik gabe.

—Zein da, zure ustez, **anaia nagusi horren bekatuak haun- diena?**

—Bere dolarrak eta «marine»ak.

—Eta zer izan da horren ondorena?

—Ez dauala Latin Amerika beronen sufrimendu eta esperantzaz ezaiztuen.

—Zer gerta leitekio **ONU**ri, **Maoren China** ez onartzean?

—Ez dakit. Bakar bakarrik esango deusut, izugarritzko erra- kuntza bat lizatekela, 900 milioi bizilagun dituan herri bat ez onar- tzea. Eta, zer esanik ez, erakunde* **internazional** horrek lotsagabeko alderdikeria bat erakutsiko leukela.

—**Castrok** aditzera eman izan dau, bere posizioa eta Ipar Ame- rikarena elkar konpondu ezinak direla.

—Hori Cubatarren arazo bat da. Galde egikiozu* **Castrori** berari.

—Zure ustea, sistema bien arteko «zubi» bezala jokatzea ote da?

—Ez. Nire posibilitadea argi dago. Neure herriaren zerbitzari leiala izan gura neuke eta, neure ideiei beti zintzo izanik, euren alde burukatu.

—**Demokraziaren bidez?**

—Bai, baina ez demokrazia **formalaren** bidez, **egiazkoaren** bidez baino. Egiatzko demokraziak herri osoaren interesak zaintzen ditu, ez oligarkia batenak. Ez dirudunen eta indartsuen interesak, samin- duen eta esperantza galdu dabenen interesak baino, edonork opor- tunidade berdinak izan daizan.

—Zer jazoko lizateke, zure **Gobernuak** bere asmoak lortuko balitu? Eta zer, huts emango baleu?

—Argi dago. Frakasatuko bagendu, **Amerikako jauntxoek** irri ta barre egingo leuket. Baina, frakasatzen ez badogu, Herriak izan- go dira poztuko direnak. Horrexegatik da hain handia gure gain daukagun erresponstabilidadea.

DONAGARAI
(euskeratzailea)

daizan, **ditzan**
deutsee, **dieta**

leitekio, **lekikeo**, lekioko
neuskio, **nioke**

ITALIAKO GORABEHERAK DIRELA TA

Aspaldian nuen honetaz idazteko asmo eta amorrua. Baina, Brecht-en urrutiratzea lagun, gaur arte egon naiz neure barrengo hestutasunak lasaitzen.

Lasaitu beharko, baina ezin isildu.

Denok dakitzazue Italiako berriak. Reggio Calabria eta Catan- zaro hiriek* herrialde bateko hiruburu izan nahian sortu diren is- kanbilak gogorregiak izan dira, nola-hala ahaztuak izateko.

Komunistek eragindakoa izan zen joan zaikun urteko hautes- kundea*; eta hauteskunde horretan herrialdeen autonomi era bat proposatzen zen. Eta komunistek proposatu zutena lortu zuen Ita- liako herriak, denok dakizue.

Ezagunak dira azken asteetako burrukak ere. Komunisten erru omen* da guztia. Pozik onartzen dut, eta beti ahaleginduko naiz honako hau onartzen, nor bere ideien eta bere ideologiaren jabe izatea. Baina gizon batek ezin lezake onar, ideologia batean fin- katu eta gezurretan jardutea. Egia edozeren gainetik dago, interes guztien gainetik. Baina, gure herriak irakurtzen dituen zenbait* egunkaritan, interesak dirudi jainko eta egiak morroi. Azpira lite- keen morroi.

Alegia, komunistak omen dira burruka hauen probokatzailak. Baina —eta barka biezadate, noren zerbitzuan dauden ez dakidan ajentzia batzuek— gezurra da holakorik. Faxistak izan dira, burru- ka sor erazi dutenak; eta faxistak, hainbat odol isur erazi dutenak ere. Eta italiarren haserrea zeragatik da, polizia faxisten alde jar- dun duelako.

Berriak emateko ajentziak, esaten duten bezain demokrazi za- leak balira, azaldu behar leuegute demokraziaren mamia. Joan den urteko hauteskundeetan, Italiako herriak herrialdeen autonomia aukeratu zuen eta erabaki. Baina, eta argi dago, zenbait ajentzia herrialdeen autonomiaren kontra dago.

Interesgarria lizateke, gure artean Italiak esaten dena jakitea. Noizko dugu benetako prentsa askatu bat? Eta hau esaten duda- nean, berdina zabaltzen diot geure prentsari ere, ageriko eta izku- tuko prentsari ere.

Interesak nagusi direnean, dena, egia eta zuzentasuna, bakea eta fedea, maitasuna eta legea, dena morroi bihurtzen da.

Baina ez gaitezen itsu izan. Ajentziek esandakoek ere ba dute zerikusia gure herrian. Zer da guk maite duguna? Egia? Gure fa- briketako makinek aspaldian miatzkatua da. Zuzentasuna? Gure he- rrian, dirudienez, argiaren alanbretxoak bakarrik dira zuzenak. Ba- kea, berriz, nor ote daki, euskaldunoi noiz izkutatu zitzaikun? Diruarekiko edo politikarieriko fedea da, nik Euskal Herrian ikusten dudana sinesmen bakarra. Maitasuna, sexoarekin nahastua. Legea... Zertarako jarraiki? Interesak, interesak dira guk maite ditugunak. Eta interesa arropa askoz jutzen zaiku. Politikariaren interesak, apaizenak, langileenak (non ote dira hauen interesak?), nagusienak (non ez ote dira hauen interesak?). Baina egia interes guztien gain bada, egirik ez dela aitortu beharko.

Horregatik izanen* dute komunistek, gure munduan gertatzen diren astakeria guztien erru.

ANJEL LERTXUNDI

biezadate, **beiste**, bezaidate
dakitzazue, **dakizue**, dakiz-
kizue
daude, **dagoz**
diot, **deutsat**

leuegute, **leuskigue**, ligu-
kete
zaiku, **jaku**
zitzaikun, jakun

Jabier de Aranburu kazatariaren mintzaldia

«Terranova y los marineros» gaiari jarraituz, mintzaldi jakinga- rri bat eman izan dau Jabier de Aranburu erdal kazetariak* Donos- tian, joan dan martxoaren 24ean. Aranburu jaunak, makailauzale batean, bidaia bat egin izan dau Terranovara, joan dan udan. Beraz*, bere begiekin ikusi eta ezagutu izan dau arrantzaleen egoera: bizl- modu latza, kulturarik ezin lortzea, atsedunik eza, lan-kontratuaren gorabeherak, etxetik urrun luzaro bizi izatea, eta abar.

Euskal antzerkia Urnietan

Labayen jaunak egindako «Agar-en seme Ismael» izeneko an- tzerkia jokatu eben Gipuzkoako Urnietan, «Eliz Ondo» aretoan, mar- txoaren 28an.

«MOCEDADES» ETA HALAKO BATZUEZ

Bidebarrietakoak «Mocedades» taldeko kantari Jose Ipiñari egin dion entrebista horretan dioenarekin, batera nator neu ere oso osorik, batez ere harekin gauza askotan ez dagoela konforme dioenean. Baina ez dut uste, inondik ere arrazola duenik, beste hau dioenean: «Baina oraingo kestioa ez da diskutitzea, erakustea baizik».

Ene ustez, Jose Ipiña jaunaren erantzunetan gauza negatibo asko dago, beste gabe ixilik uzteko; eta honexetaz nahi nuke mintzatu, hain zuzen.

Artistak, beste edozein profesionalak bezalaxe, gizartean lan bat egiten du; haren lanak gizarteari eragin bat ematen dio, bai eta gizarteak berak ere lan indibidualari ere.

Zeregin guztiak (eta modu berezi batez zeregin sortzaile edo artistikoak, jende masa handi batekin harreman bat dutelako) pertsona batzuen, gizarte baten edo herri baten bizitza konkretuari emandako erantzun bat izan behar dute; inor ezin daiteke irten erregela honetatik.

Lana, norbera bizi den gizartea kontuan hartuta, planteatzen bada, berau jarrera sozial bat izanen dateke*, gehienetan positibo eta ondratua. Norbera bizi den gizartea kontuan hartzen ez bada, ordea*, jarrera hori antisozial izanen* dateke, eta gehienetan negatiboa gainera.

Gehienetan esan dut, zeren* batzuetan (eta gure Euskal Herri honetan sarri askotan), herri kulturaren bideak eta herriaren go-goak probetxatuaz eta hoietaz baliaturik, burjeseriak masei ideologia faltsu eta aintzinakotu bat sartzen baitie; eta beste batzuetan, ordea, herriaren bizitzatik urrunduta bizi diren zenbait* lagun, gizartea aurrera eramateko oso inportanteak izan daitezkeelako, zenbait intelektualek kasuan bezala.

Bilboko (eta beraz euskal) musika talde batek artea arte dela egin nahi duela esateak, ondoko gauzok esan nahi dituzke, gutienez:

1. Horren oinarria **antisoziala** dela, egiten duen lana ez baltu planteatzen, bizi den gizarteari erantzun bat emateko asmoz.

2. Antisozial izateaz gain, haren kanten mamia edo edukia hutsaren pare dela; eta **mamirik gabeko edo mami neutrodun** lan guztiak, lan berberori egiten den gizartea iraungarri, bidezko eta hobe ezintzat hartzen duela.

3. Gure Herriak («Mocedades»ena berbera denak) ez du hartzen ez iraungarri ez bidezko ez hobe ezintzat gure gizarte hau, eta, beraz*, artistari erantzun bat esijitzen dio. «Mocedades»en lana, ezeri ez inori erantzuten ez dionez gero, guztiz antiherrikoia dela esan dezakegu.

4. Injustizia goitik behera botatzeko ezer egiten ez duena, hura* iraunerazten ari da; eta hemendik argi atera daiteke, «Mocedades»en kantak guztiz politikoak direla, **injustizia**, herriaren kontra, irauneraztera laguntzen baitute.

5. Gainera, idealistak direla esan daiteke, artea arte delako hori utopia huts bat baita*, hori permitituko dukeen* gizarte perfektu hori sekula etorriko ez delako; eta gizonaren zereginik printzipialena, horregatik, beti izanen da bizitza eta mundua hobetuz eta luzeagotuz joatea.

Jakina, «Mocedades» hemendik aurrera ere euskerazko kantak egiten segituko da, euskal publikoa haik* erosteko bezain lerdoa bada, batez ere. Baina, beraiek* dioten bezala, «greziar edo amerikar kanta batzuk kantatzen genituen bezalaxe», amerikar kantak, edo berdin grekoak, «O Pello Pello» baino ugariago sal* balitez, segur aski kanta gehiago aterako lituzketela gurek euskeraz baino.

Hemen jarri ditudan gauzetatik asko, berdintsu aplika dakizkiele beste euskal kantari batzuei ere, lehen nahiko herriko baziren ere, orain estetikazale huts batzuk bihurtzen ari direnei, herriak uler* ditzakeen moduetatik gero eta urrunago ibiliz.

ANTON ORBEA

dakizkiele, **daitekioez**.
dakizkee
dezakegu, **daikegu**
die, **deutse**

dio, **deutso; dino**
diote, **dinoe**
ditzake, **daikez**
genituen, **genduzan**

EUSKERAREN EGOERA NAFARROAN

Otsallean*, euskera eta erderazko meza bat ematen hasi da larunbatero* Tafallako talde euskaltzalea. Tafallako Eskolapioen ell-zan ematen dute meza hau; tafallar euskaltzaleek gero ta arrakasta* handiagoz ospatzen dute kristau biltzarra. Tafallako meza erodutzat har lezake, elizetan euskeraz tutik egiten ez duen horrenbeste nafar euskaldun hirik*.

Dela denbora guti, nafar euskaltzain* batek, Nafarroan euskeraz ezer egiten ez duten euskaldun parrokiak berrogei inguru zirela esan zeuten. Euskaltzain honen eritziz, Nafarroan euskera isilezati dutenak apaizak izan dira. Ez denak. Apaiz euskaltzale zintzo ere gero eta gehiago ba direla, gogotik aitortuko dugu. Baina orain txarrena hoztasuna da, eta apaiz agintariren baten borondate onak herritarrengandik laguntzarik ez izatea.

Ez zait erraz ahaztuko, orain urte bete Ultzaman ikusi nuena. Apaiz ainitz* zegoen biltzar bat zen, eta, igandea ospatzeko, elkar meza bat ematea erabaki zuten. Entzuleen artean euskaldun batzuk geunden, baina meza osoa erdera hutsez eman zen. Ultzaman eta euskaldunen artean geundela ez zirudien. Berdin egon gintezkeen edozein erdal hiritan.

Lehengo egunean, «Javierada» delako horrekin topo egin nuen neure bidean. Beste planetako jendea nekusala* iruditu zitzaitan. Ez dakit, zenbat apaiz egon omen* zen Xabierren, komunioa banatzen. Ederki.

Baina, indar mistiko hori dabilen bitartean, euskera hiltzen ari* da horrenbeste nafar parrokiatan. Alde batetik, euskeraren ospea hedatu* da, hirietako gazteen artean, bai eta agintariren beren artean ere; baina, erdi euskaldun dauden hainbeste herrixkatan, arrunt* galtzen.

Hau da egia garratza.

RUIZ URRESTARAZU
(«Diario de Navarra»tik hartua)

daude, **dagoz**
geunden, **gengozen**
gintezkeen, **geintekezen**
lezake, **leike**

zait, **jat**
zeutan, **eustan**, zidan
zitzaitan, **jatan**

MISIOEN ALDEKO ORRITXO BAT

San Jose eguna Misioen aldeko eguna da gure artean. Ez noa Misioen kritikarik egitera, nik neuk ondo ikusten ditut eta.

Euskal Herria misiolariak bidaltzen ugaria dala ta, harro gabiltza aspaldian. Eta gaur ikusi dodan legez, gure Lur maitea mislo lurra da, ezikasien lurra baita*. Halan agertzen jaku argi ta garbi, San Jose egunean zabalduko orrixka batzuetan. Papeltxo honen egileak, behintzat, erderazko asmakizunak daukaz. Adibidez: «laguntasuna itxaroten» euskerazko berbakaz erderaz esanda dago («esperando colaboración»); ez ote da euskeraz «laguntasunari begira» esaten? Beste leku batean eta letra haundiakaz «euskal iru probintziak» dino, hau da, edrerazko «las tres provincias vascas» edo okerrago «las tres provincias vascongadas». Euskal probintziak hiru baino ez dira ala? Arazo honetan Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak bat eginda jokatzan badabe, «euskal probintzietatik hiru» esan behar izan eban.

Baina ez da hau hemen amaitzen. H dala ta ez dala, eztabaida gorriak izan dira eta dira eta izango dira. Euskaltzaindiak onartu egin dau letra hori bere ortografian; eta, erabaki hau ofizialki hartuta dagoenez gero, guztiok apalik onartu behar dogu. Zergatik ez dau Elizak Euskaltzaindiaren arau hau onartzen? Orrixka horretan ez dago H-aren usainik ere. Dana dala, arau hau berria danez gero, barkatu egin beharko jaku huts hau elizgizon jakitun horri. Baina jaun horrek ondo jakin behar leuke, S letra behinik behin ba dagoela gure hizkuntzan, eta hurrengo berbak, Z-gaz barik, S-gaz idazten direla: **euskal, eskerrak, deutsue, laguntasuna, euskaldun, maitasuna**. Berba horreek guztiok Z-gaz datoz horrako orritxo horretan. Lotsagarria! Eta Chile ez da «Txile», Ecuador ez da «Ekua-dor», eta Venezuela ez da «Benezuela». Berba gutxiagotan oker gehiagorik aurkitzea ez da erraza izango.

JOSE ANTONIO ARANA MARTIJA

JOSE MANUEL LUJANBIO

Bai, ba dakit, euskaldun jakintzu jaun, neure antologia edo erakusketa honetako portalean hain «kategoria» gutiko bertsolari (poetaren gradoa ere ukatzen diezue) hau jartzen dudalako, kopeta ilunduko zaitzula, begitarreak beltzurituko* zaizkizula; baina zu eta ene artean amiltegi* bat zabaltzen da: zu karrikaren* beste galtzadan zaude, eta ni, berriz, hemengo aldean, herriak okupatzen duen galtzadan nago, Txirritarekin, bertsolariekin, bizimodua nekez eta dolorez aurrera ateratzen duen jende xehearekin. Horregatik, herriak menderik* mende bere aukera egin duelako, eta zuek, jakintzuok, Azkueren eta Agirrearen ahoz Azkoitiko premio famatu hartan zeuena egin duzuelako, neure erakusketa hau herriaren aukerarekin irekitzen dut, bertsolari batekin, aglan* ez bertsolaririk hoberenarekin, baina bai bertsolaririk bertsolarienarekin, Jose Manuel Lujanbio Regegi, «Txirrita»rekin.

Txirrita, 1860.eko abuztuaren 14ean, Errenteriatik Astigarragako bentara kaminotik kilometro eta erdira Txirrita baserrian poetatzaren seinale edo estigmarekin jaio baitzen. Eta berak ba zekien: etxe-ko primantza bera ere abandonatu zuen. Hala kantatu zuen berak behin:

Etxe-maiorazkoa
nintzen tokamentuz,
baldin zerbitu banu
aita fundamentuz.
Ene bizimodua
beti dabil kantuz.
Despatxatuko naute
ez banabil kontuz.

Eta guztiz gazterik hasi zen lanean:

Mila zortzi e'un hiru hogei ta
hamalau urte hurrean,
lehenen plazan kantatu nuen
nik Hernaniko lurrean,
San Antonio deitzen diogun
ermita baten aurrean,
lagunak elkar estimatuaz
ohitura zaharrean.

13 edo 14 urterekin beraz.

Baina bertsoek jatekorik guti eta baraurik asko eman zioten bere egunetan:

Penagarriak izaten dira
arlotearen pausoak;
adiskideak gara gu biok,
eta gainera hauzoak.
Gaur gosaririk ez daut bidali
Fagollagako atsoak;
laster bekarkit, bestela ahatz*
ez dakizkidan bertsoak.

Eta horregatik lurra landu nahi ukan* ez zuenak, harria landu behar ukan zuen:

Xipi-xipitik hartua nuen
hargintzan afizioa,
inoiz apendiz ibill gabe
ikasi ofizioa;
emanez gero materiala,
gainera despazioa,
denborarekin eginen nuke
markesen palazioa.

Txirritak humorea erein zuen Euskal Herriko lurrean, humore argi, zorrotz baina mingots bat. Platonek bere errepublikatik jaurtikitako poetei bezala, bizitze burjesaren abantail* guztiak ukatu zitzaizkion: etorkizunaren aurreko segurantz bat, familia bat fundatzeko eskubidea... Eta Txirritak honela erantzun zion Platoni:

Hogei eta bi urtetarako
nintzen ezkondu na'iean,
hiru hogei ta bederatzitan
oraindik nago gaiean.
Lehenbiziko ene pregoia
botatzen duten jaiean,
suzku zezenak izanen* dira
Donostiako kaiean.



Txirrita ta Saiburu Eibarren, 1980

Gainera, berriz, esposatzean
debalde nafar zezenak;
kostako zaizkit galantki, baina
handiak eta gizenak.
Haek hiltzeko bi kastillano,
indar handiko gizonak:
Machaquito ta Bombita ditut
toreatzeko esanak.

Dozenerdi bat urdai-azpiko
zintzilik daude jarriak,
saltxitxo eta lukainka asko,
Aragoitik ekarriak;
lau kapoi pare eta sei oilo
agindu dauzkit herriak.
Ni ezkontzean izanen dira
bankete izugarriak.

Herririk herri kantatzearekin batean kentzen zituen Txirritak jornaletik hartutako goseak. Eta modu honetan petraldu, arlotetu eta alfertu zen. Ba zekien berak:

Gazte denboran sartu bagina
frailtako nobizio,
gure gorputzak ez luke orain
duen hainbeste bizio.
Elizatik ihes gabiltza,
tunanteekin sozio.
Tripatzar honek asko behar du,
baldin ematen bazaio.

Txirritari, seguru asko, Espainiako Quevedori gertatu zitazalona gertatuko zaio hari ere, bere alderdi irrigarriak eta barregarriaren sonak kontserbatuko zaizkiola. Baina hau gure herriaren aldetik banalitate bat lizateke. Txirritak, Quevedok bezala, poesia dramatikoa hartzen duelako bere egiazko tamainia. Zenbait ezenplu ikus ditzagun:

«Euskal Meza» Bilbon

Martxoaren 28an, igandez, lehendabizikoz kantatu izan da «Euskal Meza» izeneko meza, Bilbon, Coliseo Albia aretoan*. 19 gizonen artean jarri deustoe doinua meza berri honi, azken gurpilada biribiltzailea aita Barturen pasiotarrak emanez. Beronekin batean, zeregin handia izan dau arazo honetan Andoni Arregi, «Orfeón San Antón» izeneko abesbatzaren zuzendariak. Solista bezala, Jose Anjel Goienaga mutikoak jardun eban. Eta musika jotzen ari izan ziren: Bilboko txistulariak, Zuaznabar txalapartariak, Galdakanoko albokariak, Eleizeaga dultzainariak, Urtizberako txirularia, Zumarragako trikitilariak eta Benigno Iturriaga organista.

«Euskal Meza» honen hitzak ez datoz euskera batuan, berririo ere eliztar batzuk behintzat gizartearen aurrerakuntzaren atzetik geldituz. «Euskal Meza» honen ondoren, beste kantaldi bat emateko zen; baina ez zan horretarako baimenik lortu ahal izan. Hala ere, jende asko batu zan, nahiz eta gehienak sasoikoak izan.

RETEGI, "TXIRRITA"

Bat. Negu gogorregi bategatik:
Mila zortzi e'anean
izan zen kortea,
hemen ikusi zena
negu bat, fuertea;
horma* beltzak eginez
luzaro nortea,
berrogei egunean
gero elurtea:
Ijitoek amona
jan zuten urtea.

Biga. Haur jaio-berria arranoak ebatsi* eta eraman zion ama urrikari bategatik:

Ezkon-berri bat, miserablea,
a'untz-kontura etorria,
haur xipitxo bat xexto batean
zarpa-tartean jarria;
Urdaburutik sartu zitzaion
tranpan arrano gorria;
ohartu gabe eraman dio...
Ai! Hura haren larria!
Orain hargatik deitzen diogu:
«Haurra galdu zen harria».

Hiru. Izorra utzitako neskatxarekin ezkondu zen mutil bilo-gorri bati:

Enkargatu gaituzte
dogera* jotzera;
portatu na'i genuke
prestuen antzera.
A'ari mutur-gorria,
bildu da etxera,
egin zuen okerra
erremedi'tzera.

Lau. Eskeko fraile bategatik:

Gaztea dela agindu eta
ez da izaten gauz'hutsik,
enganaturik komentuetan
sartzen dituzte hain pozik.
Gero eskera bidali, berriz,
goseak eta ankutsik.
Santa sekula ez zazu egin
fraile joateko ametsik.

Bost. Bizkaiko Junta xarki portatu zelako, Gernikako Arbolari:

Gernikako Arbola
ihartu da horra;
ez da'ukate jarririk
halako enborra.
Hari zainak* ebaki
zizkion satorra,
berrogei kana luze
babuen muturra,
hura ez zen izanen*
euskaldun jatorra!

Sei. Artzain bat' asasinatu zuen ijitoari:

Lau hogeitau urte pasatu ditu,
dirudiela etsaia*,
orain bi anak arrastan eta
burua soiltzen hasia,
gizagaixoak ba du beregan
makina bat desgrazia;
ez dago garai batean bezain
harroa eta lasaia:
Beste munduan ikusiko du
hemen hil zuen artzaia.

Kulparik gabe bota zenion
fusileko kargazoa;
gizon gaixoak hasarratzean
ez al zuen arrazoia?
Debru zaharrek aditzen dute
zure arima'n usaia.
Heriotzaren etor-beldurrak
hestutzen dautzu lasaia:
Zu baino gizon formalago zen
zuk hil zenuen artzaia.

Zazpi. Euskal Herriko bertsolarien xapela Txirritari bere eus-
kera klaroagatik kendu eta bertsolari eskas bati bere euskera pu-
ristagatik eman zion apaiz bati, eta euskera purista horri berorri:

Hiru hogeitau hamabost urte
munduan bizi ezinez,
anka reumak hartuta da'ukat,
nago anketako minez;
bi makil' zahar esku banatan,
pausorik ezin eginez.
Euskeraz ia a'aztu zait eta
erderaz berriz jakin ez:
Vaticanoko maisu batekin
hasi behar dut latinez.

Eta hau zen Txirrita, euskaldun eta proletario, artista eta lan-
gile, bertsolari komiko eta poeta sozial; herriaren erraletatik sor-
tua, bera zen herria. Haurra bere amak bezala, Euskal Herriak ez
du inoiz Txirrita ahaztuko. Ba zekien berak:

Gazterik hasi nintzela eta
oraindano bitartean,
zenbait* humore eder jarri dut
Kantabriako partean.
Pizka batean ez naiz a'aztuko
sartuagatik lurpean:
Ene aipamenak izanen* dira
beste lau hogeitau urtean.

Gabriel Arestik

dakizkidan, **dakidazen**
daut, **deust**, dit
dauzkit, **deustaz**, dizkit
diezue, **deutsezue**
dio, **deutso**
diogu, **deutsagu**
ditzagun, **daiguzan**
zaio, **jako**
zaitzu, **jatzu**
zaizkio, **jakoz**

zaizkit, **jataz**
zaizkizu, **jatzuz**
zaude, **zagoz**
zenion, **zeuttsan**
zion, **eutson**
zioten, **eutsoen**
zitzaion, **jakon**
zitzaizkion, **jakozen**
zizkion, **eutsozan**

ANAITASUNA

Bidaltu eidaze "Anaitasuna" kontrarenbolsoz.

Izen-abizenak

Bizitokia

Herria Probintzia

Urteko arpidetza eskuz nahiz jiroz . . 150 pezeta
Kontrarenbolsoz . . 160 »

Euskal teatroa Bergaran

«Danok itxulara» deituriko euskal antzerkia errepresentatu izan dabe Bergaran Idiazabaleko «Aitor» taldekoek, martxoaren 27an.

MARXISMOA ETA KRITIKA

(sozialismo, komunismo, leninismo, stalinismo, maoismo)

Marxismoa, gizartearen kritika egiten zuen pentsakera bat bezala sortu zen. Indartu, bere burruka egin, nagusitu eta ikarragarriko krisian dago. Marxismoaren mila submarxismo ta sekta sortu direla ez dago ez ikusterik. Marxismoa bizi ta gordin dagoen seinalea ote da krisi hau, kondairan sarri jazoriko gertakari hau Hegelek orokarki judikatu zuenez? Hilda ez dagoen seinale garbia, behinik behin, bai, ba da.

Jazoera hori edonork ikus dezake; eta guti dira jadanik*, diferentzia haien azpian benetako kezka ta problemak daudela ikusten ez dutenak ere. Problema kondanatu, ukatu edo garaitu egiten ziren garaia, hala ere, joan zen, eta joanak joan. Oraindik doktrinarista eskolastiko ugari badabil ere, sortzaile kritikoek bakarrik, berek bakar bakarrik bai, har dezakete beren menean* marxismoaren etorkizuna, eta ez zehaztasun gabeko lau tesirekin konformatzen diren fraseologista ezkertiar ilargitarrek.

Sortzaile kritikoak, egoera ta problema konkretuak arterkatuz dihardutenean, metodo bitara gutienez ibil daitezke: Mendebaldeko* sozial-demokratak oro* errebisionistak dira, Jugoslaviatik begiratu ta; gauza berbera da Jugoslavia, URSSetik ikusita; eta URSS bera ere errebisionista da, Chinak epaituta. Sistemak (hots, problemak oro* batera hartuz) gonbaratuz* ari dena, eskailera horrek jartzen



dion azterkabideari lotu beharko zaio. Beste jokabide bat, problema banan banan eta bakanka hartuz azterkatzea izan daiteke. Honek ba du guretzat eta oraingoz, nire eritzian gutienez, abantaila bat: Interes apologetikoari kontzesiorik egiteko premia gutiagoko dago bertan; beraz*, gaiari ta problemari zintzokiago jarrai dakikeo.

Izan ere, aurrerantzean, ez tradizionalismoan eta ez sektarismoan jarraitzerik ez dago. Eta, adibidez, marxismoaren kondairan lehenago kondenturiko zenbait* joera (esaterako, utopistak, sozialdemokrazia, luxenburgismoa, etc.) behin betiko galduta daudela eta haien herbizterik inolaz ere ez dagoela pentsatzea, haiek (oker formulatuta izanda ere) errepresentatzen zituzten bildur eta interesei jaramonik egiteko premiarik batere gehiago ez dagoela uste izatea bezala da, eta marxismoaren tradizionalismo edo sektarismoa baino askoz hobea ez. Gerta baitaiteke, behinola kondentatutako zenbait tesi zahar egoera berrian baliotsu izatea. «Konbizitze baketsuaren» tesia II Internazionalarena dela eta kondentatuta dagoela gogorazten du, adibidez, Pekinek. Ohartzapen ona, baina arrazoi askirik* ba ote da? Segun eta noraino onartuak izan autoridade kontsekratuak.

Eta horixe da beste problema bat. Bakuninek Marxi, Rosa Luxemburgek Lenini, Rakovski eta abarrek Stalini (Rizzi: «La burocratización du monde», 1939) salatutako erreboluzioaren degenerazioak gertatu egin dira gero. Beraz, kausak bilatu beharra dago. Stalin eta Marx bera, eta liburu santuak ere, kontenplaziorik eta kupidarik* batere gabe «desmitologizatu» beharra dago. Ez da aski*,

erru guztiak Stalini leporatzea: stalinismoa zerk posibilitatzen zuen (hau da, URSSeko egoeraren, Alderdiaren, eta marxismoaren tradizioaren aldetik) argitu beharra dago. Orain arteko marxista kritikoak ere alto egin izan dute gehienetan Lenin eta Marxen autoridadearen aurrean, tabu haik* ikutzen ausartu gabe. Garaudyk, esaterako. Errealidadeko problemek, ostera* (gizartearen nahiz sozialismoaren errealidadeko problemek, alegia*), autoridade haiek berrikustea ta jorratzea eskatzen dute, hain zuzen.

Zor zaio hainbeste radikaltasun, hain ondorio tragikoak ekarri dituen hamaika problemari. Esaterako, horra «klasiko» hoienez zehaztasun gabezia beren sistema osokoiaren makina bat unetan: Marxen «gizon» kontzeptuak ez du gizonaren baitan berezko alde txarrik ez ajerik* ezagutzen, eta halakorik gabeko gizarte bat zientifikoki imajinatu nahi du. Proletargoaren* diktadura demokraziatzkoa dela esan ohi da, baina demokrazia horren politikazko instrumentu edo jardungailu demokratikorik ez da konkretuki aipatzen; eta esperientziari kasu eginik, ongi esan daiteke, demokrazia berbalki postulatatu baino gehiagorik egiten ez dela. Izan daiteke kondaira osoa klase burruka, baina bestelako faktoreen (osotasunean ikusita) printzipiozko sekundaritasuna de fakto sarritan lehen-lehenengo kondaira-egile itzul ez ote daitekeen ikusi beharko lizateke: nazio-arazo askotan, adibidez. Determinismoaren zentzua ez dago argiago, etc. Guzti hoietan eta beste problema asko ta askotan dago Autore santuen irakaspenak errebisatu beharra: zeren* eta beren gaurko moduan ez baitira gauza agertu, beren buruen mila degenerazio galerazteko.

Kritikak, benetan radikala izan gura baldin badu, ez daduka autoridaderen baten fetitxe aurrean belauniko erori* ta kredoka abiatzerik. Hori ostrukaren* burua nonbait ezkutatzeko hondar mordoa bat asmatzea baita*. Antimarxismo al da hori? Aitzitik*, Marx erlatibatuz, irabazi egingo luke Marxek, haren haunditasun guztia ere ez baita* hain haundi, absolutu deklaratu ahal izateko. Hori eginez gero, ostera*, Marx haundiena ere ez dago, asto bat flauta jotzen baino, hobeto.

JOSE AZURMENDI

daitezke, daitekez
dakikeo, daitekio, dakloke
dezake, daike

dezakete, daikee
dio, deutso
zaio, jako

Zirarda gotzain jaunaren misioak

Martxoaren 2tik apirilaren 3rarte, Zirarda Bilboko gotzain jaunak misioak eman ditu Begoñako basilikan. Gotzainaren jokaera aipagarri hau oso pozgarria izan da eliztarrentzat.

Aita Martzel irratiz misioak ematen

Martxoaren 29tik apirilaren 3rarte misioak eman izan ditu Aita Martzel Andrinua pasiotarrak, Bilboko Herri Irratitik, ohi dauan euskera jatorrean. Ideiei bagagokioez, ikusmolde ilunak eta goibelak erabili ditu: Elizaren egoera larria dala inoan*, eliztarrak, bereziki* erlijiosoak, asko urritu direla ta.

Apaiak berriak Bizkaian

Bizkaiko Derion, apaizgal etxean, Iñaki Eguzkiza eta Pedro Hernández gazteek jaso izan dabe apaizgoa Zirarda gotzainagandik, joan dan martxoaren 28an. Iñaki, Larrabetzuko Goikoelxako parroko gelditzen da; eta Pedro Derion, apaiz laguntzaile.

Nafarroako apaiz eta apaizgaiak

1940-50 urte bitartean, 167 apaiz berri egin ziren Nafarroan.
1951. urtean, 42.
1950-60 urte bitartean, 289.
1960-70, 215.
1971. urtean, 5 apaiz berri egin dira.
Seminario txikian edo «Colegio San Miguel de Aralar» dala-koan, 450 ikasle dagoz.

ABALZISKETA

Nork ez du ezagutzen, Abalzisketatik gora, Txindoki mendiaren pean kokatzen den Larraitz alderdia? Uda eta negu mendigoizale direnentzat, paraje mirengarri bikaina huraxe!

Baserri bakan batzuek eta, bereziki*, Andre Mariaren ermitak eman diote Larraitz nortasuna.

Ez zen handia izan inoiz elizattoa; baina, azken aldiotan, are* ttipiago gertatzen zen, han, igande eguerdiz, mendiko aire sana hartuz elkarretratzen den jende multzoarentzat.

Guztiz xukundu eta handiagotarik, San Jose egunez estrainatu dugu ermita berria. Andre Mariaren iduria ere berria denez, eta lehengo arrunt* eskasa izanik, ba du oraindik edergailu bat gehiago paraje horrek.

Hamaika xoko ba da euskal eremuan* zehar, berezko bitxiz jantzirik, Larraitzko apaizak duen eskua bezalako baten zain, edertasunez apainagotzeko eta behoko herri trinkoetatik gora ordu batzuk pasatzera doazentzat gustagarriago egin ahal izateko.

Gure goresmenak bertako jendeari ere eta laguntza eskaini duten mendigoizale guztiei.

BEASAIN

Aterbe bat, «guardería» deitzen den hoietako bat eraiki dutela esan daukute.

Aspaldidanik zebiltzan, nonbait, horretaz arduraturik banaka batzuk. Beraz, oraindik beasaingar gurasoek, igande eta jai egunetan, hau dela edo hura dela ta, ukanen dute haur ttipiak leku seguruan utzi ahal izateko egokiera.

Leku segurua bai; honetaz ez dugu dudarik. Haurzainak, ordea, euskeraz ez dakitenak direla esan zaiku; eta honetan, zinez*, aski* duda-muda ba dugu. Jendearen esamesak ote? Hobe.

Aterbeak, gure ustez, herri handixkoetan bat bakarrik ez baina, auzo berri hoietako bakoitzeko bana behar lirateke, 2-3 urtetako haurrentzat taxaturik. Eta zergatik aterbea igande eta jai egunetarako soilik, eta ez asteak dituen egun guztietarako?

Behar beharrezko ditugu aterbeak, ez batipat* igande eta jai egunez gurasoak liberatzeko, haurrak ttipi denetik gizartea dasta* dezan baizik, eta horrela, nahiz eta erdaldun familiakoa izan, euskeraren oztopo-muga urra dezan.

«Loinaz» abestaldearen zuzendari zen Migel Irizar jauna joan zaiku ustekabeen, San Jose egunez. Hura jendearen emana, ehortzetako* elizkizunean, hurrengo egunez! Gure doluminak familiar.

ORMAIZTEGI

Irizar lantegitik at* bota dituzte han zebilen apaiz langile bat eta besterik. Zenbait esamesa zorrotz herrian eta auzo herrietan sortarazi du, alafede! jokabide honek.

Alde eta kontra, edozertariko eritziak daitezke entzun. Baina nik ere ba dut neure eritzia, eta, zenbaiti gusta edo ez, eman egingo dut.

Gauek goizera eta deus* arrazoirik emateke* plantatu dituzte kalearen erdian. Gaur egun batere harritzeko ez den gauza, esan lezake norbaitek. Neuk ere bai.

Harritzekoa, zera da: kooperatiba dela lantegi hori, eta gizarte problemetan aditua zeneko fama zuela bertako zuzendarietako zenbaitek.

Dena den, jendea kanpora jaurtikirik, ez da arazorik benetan konpontzen ahal; eta, gainera, Eguberri inguruko gertakariak, nonnahi bezala, kooperatibak ere akuilatze gogorraz eragin dituzte, batzuk herriaren gana irekitzen direlarik. Beste batzuentzat zer izan ote dira? Atzera eragiteko bidea?

GERNIKALDEA

Bertsolari baten ezkontza

Joan dan hilabetearen azken igandean, Jesus Mari Sardui bertsolaria ezkondu zan, Lamikizko Maria Angelesezag. Egun hotza; baina, eztei* egunean, ez da hotzik nabaritzen*. Magunako elizatoan, eguerdiko ordu batetan, Mendatoko Gotzon jauna meza emale zala, eta Ibarruriko Txomin jauna organu jotzaile, buztartze honen familia bi eta auzune osoa elkartu zituan. Meza, entzule guztien atsegingarri izan zan, sarrera eta eskaintzan bertsoekin, kanta egoki ta gureekin eta Gotzonek egin eban hitzaldi goxo ta mami-tsuarekin.

Gero gerokoak. Jatordu, bertso, hitzaldi, dantza, hitz, kanta, eta eztei jai batean egin ohi diren guztiak. Egun alai eta gogoangarria igaro genduan. Zorionak ezkonberriei, eta urte askotarako!

Iturri bertsolaria gaixorik

Beste albistea ez da horren atsegingarri. Urtarrilaren* 30eko ANAITASUNAK, Euskaldungoan, Iturri bertsolaria gaixorik egoela inoan. Bai eta hiru seme-alaba, emazte, ama, eta inork lan egin ezin dauan baserri bat ere zituala. Ordutik hona, egoera ez da batere aldatu. Bera zorionez hobeto badago ere, baserria ez dago hobeto, nork lan egin falta da ta. Lau hilabete Bilbon egon ondoren, Barcelonara eroan dabe, han tratamentuan jarri eta osatzeko ustez. Emaztea beragaz dauka, umetxoak amamagaz etxean, aita-amak Barcelonatik noiz etorriko zain.

Bertsolari alai eta ezteguna dozue Iturri. Hamaika barre eta hamaika pentsakizun zabaldu dau Iturrik, Bizkai guztiko herri ta plazetan! Txorierri aldean, berak esaten ebanez, Bizkaiko Obispoa baino ezagunagoa zan.

Txapelketetan ez eban suerte haundirik izan. Beti izan eban bertsolari onen bat bere aurretik: Ajuria, Lopategi, Sardui... Behin, ekinaldi gogor baten ostean*, bere anai Felixek irabazi eutsan. Baina Iturri ez zan batere kezkatzen horregatik. Jendeak ere, hemen, Bizkaian, Iturri bako bertsoketarik ez eban nahi. Horregatik, Bilbon egin dituan lau hilabeteetan, osategiko atezain, osagile ta laguntzaile guztiak harrituta egon dira, hainbeste lagun Iturri ikustera joateagaz. **Baina, nor zara zu?** esaten eutsoen gaixo lagunek. **Ni? Hona hemen naizena: gixon txikitxo bat.**

Zorionean barre-eragile eta zoritzarrean alai ta itzaropentsu dago Iturri. Azkar osatu ta etxeratzea opa deustu zure bertso lagun, auzo ta barreneko lagun honek.

DEUNORO

EIBAR

Txirrindulariak direla ta

Martxoaren 28an, «Criterium» dalakoa zala ta, Ixua gainean ginen goiz erdian. Beharbada, ez txirrindulariak ikusteagatik, igande goiza pasatzeagatik baino. Hotz ikaragarria jasan*, salda garbia hartu (hain garbia ze, han egoen jendearentzat, lukainkarik ezean, ura ezartzen eutsuen eta) eta hiru ordu inguru zutik egon. Ha zan plana, ha!

Dana dala, iraganak iragan*, pozik asko jaitsi ginen, aspalditxoan hainbeste euskera entzuteke* gengozen eta. Ha zan gazteria, ha: barra barra euskeraz ziharduan gazteria, hain zuzen! Bizkaitar asko zan, asko eta asko, ia gehienak. Eta **benetako** bizkaitarrak, Markina eta Durango aldekoak. ANAITASUNA txartela ere makinatxo bat autotan erantsia ikusi ahal izan genduan. Era horretako publikoarekin bai esan daiekgula, gure artean eratan diren probak, direnak direla, gure gureak direla. Pozik jaitsi ginen, bai, Ixuatik bazkalorduan; metara nor iritxi* zan lehen jakin ez bagenduan ere, pozik jaitsi ginen.

Inkesta bat

Bizkaitar gazteen artean egin dan inkesta* batetan, ehunetik hogeitaz hamarrek ondo erixten ei deutsoe ingandeeetan mezatara joateri. Ehunetik hogeitaz sei ohituraz joaten ei* dira, % 10 zeresanagatik, % 16 zeredozer egitearren; eta % 8k denbora galtzea dala dinoe. Batez beste, gehienek ez ei dakie zertara joaten diren mezatara.

Halan eta guztiz ere, gure eritiz, inkesta baikorra dogu hau. Interesgarria lizateke, inkesta hori non egin dan jakitea, Markinan ala Sestaon esate baterako, zenbaterainoko balioa dauan jakiteko.

Bernard da Costa

«Diario Vasco» egunkarian irakurri dogunez, «Los adioses de la gran duquesa», presentean Parisen arrakasta* daben antzerkietatik bat dozue, Poche-Montparnasse teatroan antzeztua. Bernard da Costa, beraren egileak, euskeratu behar ei dau dalako obra hori. Bere deituragatik besterik badirudi ere, euskal jatorrikoa ei da, eta euskeraz oso ondo ei daki. Guk idazle horren berririk ez daukagun arren, Juanitok eukiko dau akaso, bere «Escritores euskéricos» katalogoan sartzeko.

ALBISTARIAK

MUNGIALDEA

Euskerazko klaseak

Mungiko Istitutoan, euskerazko klaseak ematen ari* dira.

Beste ekintza batzuekin batera egin beharrekoa zan pauso hau. Baina oraindik gure herrian euskeraren eta herri-kulturaren zabal-kuntzak indar gutxi dauala uste dot. Ea gazteak gehiago saiatzen garen; bestela, ez dau inork ezer egingo.

Antzerki interesgarria

Martxoaren 13an, Bilboko «El Grupo» taldeak «Farsas Contemporáneas» izeneko antzerkia egin eban Mungiko monjen ikastetxean. Oso kritika sakona ta latza gure gizarteari. Penagarria, hain jende gutxi bertara joatea. Propaganda eskasagatik izan zala uste dot, sarrerak borondate orde ematen ziren eta. Hurrengoan, ea hobeto egiten dogun.

Pelota partiduak

Martxoaren 19an, «Danok Bat» elkarteak antolatutako txapelketako azken partiduak jokatu ziren. Jendea ugari. Hona hemen txapelkunak: Gazteen artean Legorburu eta Uriarte (Zeanurikoak). Honek jarraitzaile «jator» talde bat ekarri eben, erderazko pankarta bat ere euken eta.

Bigarren mailako afizionaduetan, Rekalde bilbotarra eta San Vicente sestaotarra. Eta lehenengo mailakoan artean, Jadraque eta De Miguel sestaotarrak.

Otsailaren* 28an, beste pelota saio bat izan dogu. Biarrizko sei pelotarik eta Mungialdeko beste sei parte hartu eben bertan. Saio honen izena, «Festival Internacional de Pelota Vasca», frantsesek eta espainolek jokatu baiteben.

Alkatea, diputadu

Azken orduan jakin izan dogunez, Mungiko alkatea diputadu aukeratua izan da. Ez dakigu zein «alderditik». Edozelan ere, zorionak! Eta ez ahaztu zeure herritarrekin.

I. J.

JOSE AZURMENDIREN ARTIKULUA

Azkenengo ANAITASUNAn Jose Azurmendiren artikulua irakurri dot. Konkortuta geratu naiz. Ez dozue uste, gure herri zehearen zatitza gogorregi dala hori? Klase batean edo kursillo batean, gizon eta gazte apur bat helduentzat esan leitekena, beste giro batean ezin leiteke esan. Baina ANAITASUNA hemen gehienbat herri zeheak irakurtzen dau. Ez eizue egin zeuen errebista ofizina batetik bakarrik; herriagaz ere kontatu behar dozue. Hemen gure herritarrek titulu hutsagaz geratuko dira asko: «Jesus Nazaretekoa, ez-kondua ala mutilzaharra?» Hau ez da larregi*?

EMILIO KORTABITARTE (Aulestia)

Ez naiz geratu konforme, gai hau ANAITASUNAREN 207. zenbakian irakurri dodanean. Uste dot, honelako gaiak ez direla herrian zabaltzeko behar, han egin dan legez*. ANAITASUNA irakurtzen daben gehienak, teologi gaietan ezjakinak dira; eta, irakurri orduan, honelako gaiak buruko min haundiak ekarri leikeez. Gai honek baino lehenago, gauza asko ikasi behar ditu teologiari buruz herriak oraindino.

XIRI (Arratia)

«Jesus Nazaretekoa, ez-kondua ala mutilzaharra?» idazpuruaren martxoaren 15eko ANAITASUNAK eman duen artikulua ez zait inola ere, Jose Azurmendik «errespetu guztiagaz» idatzi arren, errespetuzko iduritu.

Dokumentaturik eman du, eta, hala ere, guztiz arina da, ene ustez. Ez ote dago zer jorraturik, Jainkoaren giza elizan gaur egun, hori baino premiatsuagorik?

Eta ene eritziz hau ez da soilki nirea, talde batena baizik, taldean baitugu eztabaidatu.

Nahi genuke benetan, aintzindari eta aurrerakoi izan ledin ANAITASUNA; baina ez, izen hori probetxatuz, sakontasuna zer den ahazturik ibil ledin.

Esan gabe doa, zuzendaritzak ere ba duela errua horretan. Ez ote zen xoko bazter bat aski*, Phipps-en eritzia berri emateko? Ala, sekulako mamidun gaia bailuen eman behar zen sail horretan?

F. S. J. (Lazcano)

Zuzendaritzaren oharra: Egia esan, eta jaso ditugun erantzunak ikusita gero batez ere, argi ikusten dugu, Jose Azurmendik egindako artikulua ez dela aldizkari honetan erabiltzeko gaia.

ANAITASUNA-REN GAURKOTASUNA

ANAITASUNA zabaltzeko esaten dozue. Baina zer esango deusatzat, harpidedun egin behar danari? Artikulu interesgarriak aurkituko dituala, gizarte, politika edo ekonomiari buruz? Ez, ezin deusatzat gezurrik esan eta. Ala, harpidedun egite hori euskera batua irakurri ta ikasteko bide bat legez* planteatu behar deusatzat?

Azkenengo ANAITASUNA (martxoaren 15ekoa) eredutzat harturik, Chileri buruz dakarren guztia, gizarte konkretu bati buruz da, herri baten iraultzari buruz; eta, uste dot, gaia interesgarria dala. Baina —hau nire kexa— joan dan urteko abenduan irakurri neban «Indice» aldizkarian. Horregatik, aktualidade bako eta aktualidadetik joandako artikulua dira, nahiz eta gai interesgarriak erabili. Euskaldunok beti erdal aldizkarietan aurkitu behar izaten ditugu aktualidadezko gaiak. Baina ez bota errurik hamabosterokoa izateari. Hor «Cuadernos para el Diálogo» hilabeterokoa, «Triunfo» asterokoa...

ANAITASUNA, euskera ikasteko eta euskal kultura bizi ahal izateko irakurtzen dot. Baina, ene ustez, ez lizateke txarto etorriko, gai interesgarriak ateratzea, tiro batez txori bi hil ahal izateko: euskera sakondu eta formazio bat hartzeko. Bestela, ez gara egundo euskal kultura eta euskal formazio batera helduko. Erderaz hezitzen bagara, oster*, erdal formazio bat hartuko dogu.

Egia esan, hamabosteroko aldizkari batean ezin daiteke formazio bat edo kultura bat hartu; baina ditugun indar guztiak eta medio guztiak lehertzen ahalegindu behar gara.

R. G. (Durango)

Kultur ekintza bi Larrabetzuan

Martxoaren 28an, «Ori bai» taldeak eraturik, kultur ekintza bi izan dira Bizkaiko Larrabetzuan. Gotzon Garate, Deustuko Unibertsidadeko irakasleak, «euskera biziko ote da?» gaiari buruz berba egin eban, «biziko da» esanez. Gero, «Oskorri» kantari taldeak ekin eutsen.

BILBO

Berriro ezetza

Abando auzokoak berriro etorri jakuz, euren problema ANAITASUNAN azaltzeko eskatuz.

Abando auzo haundian (bost milatik gora euskaldun bizi dira bertan), ez dago jaiegunetan euskerazko mezarik.

Eliztar batzuk, berriro, Espartero kaleko San Frantzisko Xabier elizara joan dira, Manuel Ramila parroko jaunagana. Jaun hau Santander-ekoa da, eta ez dau atsegin euskera. Ezetz biribila eman deutse.

«Herria» astekaria

Aste honetan heldu jakun HERRIA Baionako euskal astekarian irakurri dogu, orain arte Donibane Lohitzuneko alkate izan dana (Larramendy jauna), azken elezioetan agintaritzatik kendua izan dala. Donibandarren botoak beste alde batera joan ei* dira.

Larramendy jauna aspaldion famatua egin zan, Zokoko Aita Larzabalen kontra deklarazio batzuk egin zitualako. Orduan, alkatea zan. Gaur ez.

«Anaitasuna» aldizkaria

Hamabostero, Jardin Txikerra kaleko bulegoan*, talde bat bazen da, aldizkaria plegatzeko, korreora bidaltu orduko.

Zuk, irakurle, laguntzera etorri nahi badozu, zeure izena eman ez, deitu telefono honetara: 431837. Aldizkaria hilabetearen 1ean eta 15ean zabaltzen da, eta plegatzeko lana bi edo hiru egun lehenago egiten da.

Horrez gainera, era bitara lagundu zeinke, ANAITASUNA eza-gunago egiten: jarri zeure autoan ANAITASUNA txartela; eta zabaltzeko propaganda orriak, euskal izendegi polit batekin eta euskera batuaren oinarri batzuekin oraintsu argitaratu direnak. Eskatu txartela eta orriak Jardin Txikerrara; dohan* bidalduko jatzuz.

XABIER GERENO

«Eskualdun Xoriak» muntaturiko kolonia bi

Bal mutiko eta bal neskatoentzat, kolonia bi eratu ditue Iparaldeko «Eskualdun Xoriak» elkarteok: uztailaren* 8tik 31ra Ternose-n, eta abuztuaren 5etik 26ra Milafrangan. Argitasun gehlagorako: «Eskualdun Xoriak», 9, rue des Prébendés. 64, Bayonne, France.



¡SOBERANO es cosa de hombres!

EUSKALERRIA

¡Gizonen ama lurra da!

EUSKALDUNEN MISIOAK

Orain arte, «Los Ríos-ko Misioa», izen hori eman diegu euskaldunen misioei. Ondo zegoen hori hasieran, lurralde horretan hasi baitziren lanean Gasteizko elizbarrutiko euskaldun misiolariak.

Baina, handik hona, 22 urteren buruan, gauza asko gertatu dira. Batetik, Gasteizko elizbarrutiak umeak egin zituen, eta Bilbo ta Donostiako elizbarruti berriak agertu ziren. Hurrengo, Los Ríosek ere umeak egin, eta beste lurralde berrietara joaten hasi ginen euskaldun misiolariak.

Los Ríos-en hasieratik sei urtetara, El Oro-ko Misio berria hasi genuen. Ecuador-en, hura* bezala; eta, hura bezala, tropikoko baso beltzetan. Nekazaritzan diharduten gizaki behartsu haiei, baitaioaz hartu duten sinesmen-orratz* hori hazi, sendotu eta lore ta frutu emanerazten ari* dira han misiolariak.

Handik bost urtetara, Venezuelara jauzi*, eta han beste hiru lurralde hartu genituen, Tuy eta Guayanako lurraldeak, Ecuador-en bezalako baso beltzeko nekazari artean. Eta hirugarrena, Caracas hiri* haundi inguruko, Coche deritzan auzo haundi ta pobrea. Venezuelako lanbidea, Ecuador-ekoaren antzekoa, gutxi gorabehera.

Ez ziren oraindik bi urte iragan*, eta Afrikan ere ginen gu. Afrikako Angolan, lehenengo. Angola alderdi honek sekulako lurralde haundiak izanik, bi zati edo misio hartu genituen bertan: Malange eta Sa da Bändeira.

Handik, Congoko Catangara eman genuen hurrengo pausoa, bertako istilu gorri haien ondoren. Eta bertako gure misio honen izena: Panda-Mufunga.

Eta Panda-Mufunga honetatik, Ruandako Kamonyi-ra, gero. Afrikako giroa Ameriketako baina hobe eta zindoagoa duzu. Gizakiak ere, sendo- eta saiatuagoak. Askoz ere atzeratuagoak bizi zaizkizu baina, beren aspaldiko nekazari- eta artzaingoa. Hitzkuntza bereziak ere dituzte, eta gehienak sorginkerietara emandako jentilak dituzu.

Bereziagoa duzu, beraz, hango lanbidea: bereziagoa, latzagoa eta luzakorragoa. Eskola eta sendagaien behar gorrian daude, batez ere.

Afrikako jauzi* haundi hori egin arren, ez ditugu, horregatik, Ameriketako lurraldeak bertanbehera utzi. Aitzitik* ere, lehengoak sendotuta, beste herri batzuetara sartu ere gara. Ecuador-en bertan, Manabiko misioa eta Ambatoko apaizgaitegi bi hartu ditugu.

Eta Ecuador-etik at*, Chile ta Brasilen ere hasi gara, orain zazpi bat urte.

Chileko Chiloe hori, Venezuela ta Ecuador baino aurreratu-xeago. Eta hango lanbideak hemengoan antzekoak dira, gutxi goraberera. Giroa ere hobea.

Ez horrela Brasileko São Paulon. Ia zazpi milioiko hiritzar hau era guztietako lantegiz beterik dago. Eta gure misiolariak, hiriaren inguruko 350.000 bizilaguneko auzotzar batean ari zaizkizu lanean.

Bertan bizi direnik gehienak, Brasileko baserrietatik etorritako nekazariak dituzu. Jaunaren gauzetan eta lantegiko gauzetan hazi eta ikasi gabeak, gehienak. Bi gauza hoietan salatzen dira, bada, gure hango misiolariak.

Berrehun bat apaiz euskaldun ibili gara, 22 urte hauetan, hemen izendaturiko lurraldeetan, beste hainbeste monja eta neska-mutilekin batera. Apaiz gehiago behar dira, lurralde hoietako bakoitzean. Eta lurralde gehiago daude, apaiz euskaldunei begira eta deika.

MANUEL ESTONBA
(«Los Ríos» aldizkaritik hartua)

GALDAKANO

Joan dan martxoaren 28an Igandez amaitu genduan Galdakanoko «El Torneo de Fútbol Aficionado» dalakoa.

Igaz, gazte ausart* batzuek ekin eutsoen lehiaketa* horren antolatzeari. Alde batetik futbol-zaletasunak eta bestetik elkartasun pixka bat sortu-nahiak bultzatu zituen gazteok ekintza honetara.

Jendea inork uste baino gehiago arduratu zan. 16 taldek parte hartu eben. Hasierako poztasun honen eraginez, aurretikoak aina* bizkorak diren beste gazte batzuek heldu eutsoen aruten arazolari, eta II Lehiaketa antolatu dabe.

Oraingoan ez dira hainbeste izan parte-hartzaileak: 10 talde. Baina inork aina* ondo bete dabe euren zeregina.

Aipatu ditugu Lehiaketaren helburuak. Deporteari bagagokioz, ezin hobeto joan dira gauzak. Parte-hartzaile guztiek inon diren ahaleginak egin ditue, II Lehiaketa hau itxurazkoa izan dadin. Honetara, futbolari azkarrak ikusi izan ditugu. Giza baloreei bagagokioz, ostera*, asmoek ez dabe nahi zan ainako* fruturik eman izan. Dana dala, pauso bat aurrera eman izan da.

Ondorenak ateratzen hasiz, Lehiaketa hau onuragarria izan dala uste dogu. Gaur eguneko gizarteak ez dau behar aina jardunaldi fisikorik egiten, eta hori gorputzaren kalterako da. Beharbada, Lehiaketa hau zerbait lagungarri izan da honetan, eta, beharago, gauza hobe ta osoagoak egiteko bide bat duteke*.

Giza baloreei, batez ere elkarrekiko harremanei bagagokioz, ostera, asko ta asko irabazi geinke. Lehendabizikoz, kontuan hartu behar da, Lehiaketa honen helburua* ez dala gorputzaren osasunari bakarrik begiratzea.

Teknikazko beste puntu batzuk ikutuz, «Atxurtu» taldea benetako txapeldun izatera heldu zan. Dana dala, talde guztientzat banatu ziren ohiturazko gomutagarriak. Partidu guztiak Elexaldeko zelaietan jokatu ziren. Zelai honen orde, beste Polideportibo bat jasoko ei* da. Horixe da, behintzat, Galdakanoko Udalaren* asmorik

IPAR ALDETIK BI BERRI

Komerzant tikiak hasarre

Joan den aldian genioen, Ipar Euskal Herriko langileak arras* kexu* genituela, lan eskasiaren gatik, hiru mila langilez goiti* lanik gabe daudelakotz. Hauen auzi latza ez da oraino zuzendua, zorigaitzez. Eta orain diogu, komertzantak hasarre ditugula. Komerzantak diogularik, komertzant tikiak aipatu nahi ditugu. Azken urte hauetan arrangura* frango ba dute hauek ere adierazteko, komertzant haundiei buruz gisa* berezi batez.

Baiona inguru hauetan ere, komertzio haundiak erroak egin ditu eta zorigaitzez komertzio tikiaren kaltetan. Ba ditugu bereziki* bi saltegi haundi Angelu hirian; eta, hauek lanean hasiz geroztik, komertzio tiki ainitzek* atek hetsi* behar ukan* dituzte.

Baina orain, joan den aldian aipatzen genuen CIDUNATI deitu* oldearekin*, komertzant tikiak ez daude lo egotekoak! Asko gauza nahi dituzte zuzendu eta arrazoiekin. Hona gertakari bat, beren buruen zaintzeari deliberatuak direla erakusten daukuna.

Angeluko saltegi haundienak lau egun berezi muntatu ditu, bete dituen lau urteen ospatzeko, zernahi gauza eta janari mota prezio apalenetan salduz. Komerzant tikiak hasarre bizian sartu dira, eta saltegi haundi horretan nahaskuntza eta kalapita* zenbait muntatu dituzte.

Ez dute, bistan da, deus* kanbiatu; baina ba direla erakutsi dute eta, dudarik gabe, larderia* pixka bat sendiarazi, dena den, ez baita* guti.

Baionako Ferietan egun bat osoa euskerarentzat

Lehenengo aldian izanen* da, Baionako Ferietan gure euskera beldurgabea jalgiko* dela plazara! Euskal kulturaren indartze baten seinalea dugula hor, ez da dudarik; eta segur hobe gure Herriarentzat.

Egun bat oso osoa euskerari emana izanen da, beraz*, aruten Bainako Ferietan. Egun guztia egin izanen da euskal liburu eta diskoen feria. Egun guztian, Feriaren ikusliar guztiek entzunen dituzte euskal soinu aiosak. Arratsalde erditan, berriz, euskera dakiten eta ez dakiten ainitzek*, Kantaldi baten entzuteko parada* izanen dute. Kantaldi baten orde bi izanen dira, egia esan. Zeingehiagoka gisan* muntatu baita*, eta beraz, lehen zati batean agertuko diren hamabi kantarietarik sei baztertuak izanen baitira, gero bigarren zatian gelditzen diren seirak bakarrik aritzeko* gisan. Lau sari ba dira hor irabazteko: lehena 800 libera* berri, bigarrena 500, hirugarrena 400, eta laugarrena 300.

Egun eder baten esperantza ba dugu, beraz, aruten Baionako Ferietan. Egun hori oraindik hautatua da: uztailaren* hirua. Beraz, bizkaitar zenbait* ere Baionarako direla ez dugu dudatzen.

900 jende ikusi dute «Noiz» antzerkia

Baionako teatroan

Martxoaren 29an, astelehenez, emana izan da, Baionako teatroan, Daniel Landart-en azken antzerkia, «Noiz» izenekoa. Aspaldi honetan jendeak igurikatzen* zuen, eta azkenean ukan du ikusteko atsegina. Ba ziren Mauletik, Donapaleutik Donibane Garazitik, Balgorritik, Senperetik, Hendaiatik, Donostiatik eta beharbada urrunagotik ere, «Noiz»-en ikustera etorriak zirenak. Baionako antzokia* gaindika bete zen. Orotarat, ba zitezkeen bederatzik ehun ikusliar nonbait.

Antzerkilariek aintzineko* urteetan bezain harrera ona ukan dute jendearen aldetik, eta segur hartze* zuten. Antzerkilariek ere esan dute, haien iduriko* jendeak arras ongi segitu duela antzerkia. Iparraldean ere, antzerkiak publiko on bat moldatzen diharduela ez da dudarik.

Nola antzerki honek aipatzen baititu Euskal Herritik Parisera lanketa* joan diren neska eta mutiko gazteen buruhausteak, ez da dudarik, gazteei baino gehiago efetu egin diezakeela, beren umeak Parisen edo beste nonbaiten dituzten gurasoel. Ez du «Noiz»-ek, «Bai ala ez»-ek bezain bizitasun ezarri ikusliarren artean, alde batetik ez baita* gai berekoa, eta bestetik ez baita arras oraingoa. Duela hamar edo bost urte, ainitzez* efetu gehiago ukanen zuela ez da dudarik.

«Bai ala ez»-entzat bezainbat goresmen hartze* du gure adiskide Daniel Landart-ek, alde batetik antzerki berri eta on bat egin duela; eta bestetik, beti aurrera joanez, beharbada antzerki egile berri batzuk* sortaraziko dituelakotz, euskal kulturaren onetan.

GEXAN LANTZIRI

daude, **dagoz**
dauku, **deusku**, digu
diezakee, **deiskioe**, dezaleke
diogu, **dinogu**
genioen, **esaten genduan**
zitezkeen, **eitekezen**

kutunenatariko bat. Ez dogu uste, landa berri horretan ere beste Lehiaketa bat egiteko eragozpenik izango dogunik.


Azkenez, beste herri batzuetan ere antzerako Lehiaketak egingen ari* direla esan behar dogu. Kasurako, Larrabetzuan jokatzeko ari diren Lehiaketan, zenbait herritako taldeek parte hartzen dabe. Galdakano honetan ere, Lehiaketa bat antolatzen dabilta federatu gabeko haurrentzat.

Guztiantzat mesedegarri izan dadila.



H. von Kerckhoff

BAKIO



BAKIO'n etxe bi eraiki ditugunean, "ITXAS BEGI BAT", ondarreta gainean eta "KAI ALDE", kajan bertan, Durango, Ermu, Elorrio, Mungia eta Gazteis'ko hainbat eta hainbat familiak, zer-esanik ez bilbotarrek, izadiak mendi ta ondartzaz mimatu duen herria aukeratu dute. Bere txakoli ta lanperna entzutetsuek ezer ez direla, gure herriaren ohitura ta kutsu bereziek bizikiro agertzen diren txokora jo dute.

Hoik honela direla, eta egin ditugun 124 bizitza ta apartamentuak salduz gero, **PORTUGANE** izenez egiten hari geran etxe barria salgai eskeintzen dautzugu.

Zirti ta zarta haitzak hauts, urtebete luzea daroagu kaia barria eta laugarren mailan gora doan etxea egiten, pare-gabeko toki ikusgarria hau zeuri eskeintzearren.

Et, et, baina udaldirako etxe batek arduratua bazaitu, zelan ez, zatoz Bakio'ko Arimune Hostalera larunbata-igande bat pasa. Gure kontu lagun biren gastuak, edo ta, zeure ta zeuretarren bazkariak igandean hobeki bayatortzu.

Bai taxi edo autoaren gastuak, eta larunbata-igandeko egonaldia, nahiz sendi osoaren bazkal-ordainkizuna,

PORTUGANE'ko bizitza bat erosten duzunean, den-dena abonatu dautzugu.

Huskeria dirudi zera honek, baina **ZERUKO ARGIA, ANAITASUNA, AGUR** edo **KILI-KILI**'ren harpidunengan bakarrik gordeko dugu.

280.000-an hasi eta 700.000 pesta arterainoko bizitzak ditugu. Den-denak itxas-ertzean. Barretz, eta, farregarria irudiarren, zeure balkoitik egin dezakezu arrantzan.

Pagu-erak, berriz, aukera osoan dituzu. Zeuk nahi bezalatsu: Erdia giltza hartzean ordainduz gero, gainontzekoa 10 urtetan zehar.

Esate baterako:

100.000 pesta atzeratzen badituzu, 1.172 pesta ordainduko hileko.

200.000 pesta 2.344.

300.000 pesta 3.558.

BIZI ZAITEZ BA BIZI ZEURETARREN KIN: Giro berezi batetan eta erabat **EUSKALHERRIANII**

Igandetan ere zai gaituzu Bakio'n. Hararte ba.

ii INMOBILIARIA ITURRIAGA

en BILBAO: Iturriaga, 80
Tlfns. 334184/334185
en BAQUIO: Residencia PORTUGANE



HIZTEGIA

Ale honetan izartxo batez agertzen diren berbak

ABANTAIL, **ventaja**.
 ABELTASUN, aberetasun, **animalidad**.
 AGIAN, nonbait, **seguramente**.
 AHATZ, ahaztu (**inperatibo, subjuntibo eta potentzialetan**).
 AINA, beste, bezainbat.
 AINAKO, besteko, bezainbateko.
 AINITZ, asko.
 AINTZINEKO, aurreko.
 AISE, aisa, erraz.
 AITZITIK, **al contrario**.
 AJE, **vicio**.
 ALAJAINA, **pardiez!**
 ALEGIA, **a saber, esto es, es decir**.
 AMILTEGI, **precipicio, barranco**.
 ANTZOKI, **teatro**.
 ANTZU, **estéril**.
 ARDIETSI, lortu.
 ARE, oraindik.
 AREATZA, **Villaro**.
 ARETO, **sala, salón**.
 ARI IZAN, jardun.
 ARITU, ari izan, jardun.
 ARRAKASTA, **éxito**.
 ARRANGURA, **queja, descontento**.
 ARRAS, guztiz, oso.
 ARRUNT, guztiz.
 ASKI, nahiko.
 ASTEARTE, martitzen.
 AT, kanpo.
 AUSART, **valiente, intrépido**.
 AUSARTU, **atreverse**.

BAITA, bait da, da ta.
 BATIPAT, batez ere, bereziki.
 BATZORDE, **comisión**.
 BATZUK, zenbait (**batzuek aktibo, batzuk pasibo**).
 BELTZURITU, **ponerse ceñudo**.
 BERAIEK, euren.
 BERAZ, hori dala ta, **por consiguiente**.
 BEREHALAXE, behingoxean, guztiz arin.
 BEREZIKI, batez ere.
 BOKART, antxoba.
 BULEGO, **oficina**.
 DAKIKEGU, dakigu nonbait.
 DASTATU, **gustar, apreciar**.
 DATEKE, da nonbait.
 DATZA, **está, yace, consiste (etzan aditzaren forma)**.
 DEINO, dan bitartean.
 DEITU, deitutako.
 DEUS, ezer.
 DITUZKE, ditu nonbait.
 DOGERA, dobera, **serenata rústica**.
 DOHAN, **debalde, gratis**.
 DUKE, du nonbait.
 DUKETE, dute nonbait.

EBATSI, ostu.
 EGIKIOZU, egikeozu (**ikus «Sustrai Bila», 138; Lafitte, «Grammaire Basque», 369**).
 EGIN, egindako.
 EGITEKE, egin gabe.
 EHORTZETA, ehorketa, hileta.
 EI, omen.
 EMATEKE, eman gabe.
 ENTZUTEKE, entzun gabe.
 ERABAT, guztiz, zeharo.
 ERABATEKO, guztizko, **completo**.
 ERAKUNDE, **institución, organización**.
 EREMU, **territorio**.
 ERORI, jausi.
 ESKUALDE, **comarca**.
 ETSAI, arerio, **enemigo**.
 EUSKALTZAIN, **académico**.
 EZTEI, eztegu, **boda**.

FITS, tut, pixka.
 FUNTS, barru, barne, **solidez**.
 FROGATU, **probar, demostrar**.

GANORE, ganora, kanore, **fuste**.
 GARDENTASUN, garbitasun, **transparencia**.
 GAIZKOATU, **agrar, empeorar**.
 GISA, modu.
 GOITI, gora.
 GONBARATU, konparatu.
 GUTUN, **carta, misiva**.

HAIK, hareek (**haiek aktibo, haik pasibo**).
 HALABER, **igualmente**.
 HARAN, **valle**.
 HARTZE, hartzeko, harturen. (**Hamar pezeta hartze ditut, hamar pezeta zor jataz**).
 HAUK, honeek (**hauek aktibo, hauk pasibo**).
 HAUR, ume.
 HAUTESKUNDE, bozketa, **votación**.
 HEDATU, zabaldu.
 HELBURU, xede, **fin, objetivo**.
 HETSI, hitxi, **cerrar**.
 HEZIERA, **educación**.
 HIRI, huri, **villa, ciudad**.
 HITXI, hetsi, **cerrar**.
 HOIK, horreek (**hoiek aktibo, hoik pasibo**).
 HORMA, lei, **helada**.
 HORRETAZ, beraz, hori dala ta.
 HOTS, **a saber, esto es, es decir**.
 HURA, ha.

IDURIKO, ustez.
 IGORRE, **Yurre**.
 IGURIKATU, itxaron.
 INKESTA, **encuesta**.
 INOAN, zioen, esaten eban.
 IRAGAN, igaro, pasatu.
 IRITXI, heldu.
 IZANEN, izango.

JADANIK, ya.
 JALGI, irten, atera.
 JASAN, **soportar**.
 JAUSI, erori.
 JAUIZ, **salto; saltar**.
 JENDARTE, **público**.
 KALAPITA, **alboroto**.
 KARRIKA, kale.
 KAZETARI, periodista.
 KEXU, artega, urduri.
 KOKATU, **situarse**.
 KUPIDA, erruki.

LAKIO, **lazo, tranpa**.
 LANKETA, lan bila.
 LARDERIA, **temor, respeto**.
 LARREGI, gehiegi.
 LARUNBAT, zapatu.

LEGEZ, lez, bezala.
 LEHIAKETA, **competición, concurso**.
 LIBERA, **franco**.

MARRAZKI, **dibujo**.
 MEMENTO, momentu.
 MENDE, **siglo**.
 MENDEBALDE, mendebal alde, **occidente**.
 MENEAN, menpean, mendean. (**Hobe dateke** menean nahiz menpean erabiltzea, mendean hitzak beste gauza bat ere [en el siglo] esan nahi baitu).

NABARITU, **percibir, notar**.
 NEKUSALA, ikusten nuela.
 NOSKI, naski, **ciertamente, claro está**.

OLDE, **impulso, inspiración**.
 OMEN, ei.
 ORDEA, ostera, berriz, baina.
 ORO, guztiak.
 OROTARAT, orotara, guztitara.
 ORRATZ, **germen**.
 OSTEAN, ondoren, ondoan.
 OSTERA, berriz, ordea, **en cambio**.
 OSTERANTZEKO, bestelako, **distinto**.
 OSTRUKA, **avestruz**.
 OTSAIL, zezeil, **febrero**.
 OZENKI, **sonoramente, vibrantemente**.

PARADA, ereti, abagadune, **ocasión**.
 PROLETALGO, **proletariado**.

SAL, saldu (**inperatibo, subjuntibo eta potentzialetan**).
 SEN, **instinto**.
 SETATSU, **tenaz, perseverante**.

UDAL, **ayuntamiento, municipio**.
 UDALETXE, **casa consistorial**.
 UKAN, izan (**aktibo**).
 UKIGARRI, **conmoverdor**.
 ULER, ulertu (**inperatibo, subjuntibo eta potentzialetan**).
 URRATS, pauso.
 URTARRIL, **enero**.
 UZTAIL, **julio**.

ZAIN, zan, **vena, raíz**.
 ZENBAIT, batzuk.
 ZEREN (ETA), ze, **pues**.
 ZINEZ, benetan.
 ZIO, **motivo**.

ELAIS ALAI YURRE

DANTZA TOKI GOXOA

Igandez ta jai egunez: 6 tatik 11.ra
Astegunez: 7.tatik 11 ra.

AMALUR

KAFETEGI RESTAURANTA

OMENALDI BATEN ONDOREN

EZ GATOZ BAT

Oraintsu Lasarte bertsolariari Donostian egin jakon omenaldien berri dakidanetik, kezka daukat barrenean, Erdal Herriko medaila-ezartzeak kutsatu ez ote gaituan.

Orain urte batzuk —zortzi uste dot— beste omenaldi bat egin jakon bertsolari honi Eibarren. Omenaldi ha —luzea lizateke zioa* azaltzea— beharrianez egoen gizonari laguntzeko zala guztiok dakigu. Oraingoan, baina, bertsolari bezala ospatzeko izan da.

Bertsolari ona dala ere guztiok dakie; baina zergatik egin izan jako omenaldi hau? Zer egin dau Lasartek, bertsolari bezala, omenaldi bat merezi izateko? Egin izan diren bertsolari txapelketetan, ez dot behin ere ikusi, aurrez deitua izan arren. Markinako urteroko batzarrak, zortzi urte luzetan, ez deutso itzalik egin. Erreguka ekin eta azaltzen ez danak omenaldi merezi badau, zer egin behar ote jako, nahinon eta nahinoiz azaltzeko gertu dagozen ehun bertsolariari?

Donostiako Anoetan egin zan' sariketa nagusian ikusi neban bigarren. Eibarren, lehn aldiz, lehiaketa* edo zeingehiagoko bertsuetan. Lehiaketa honetako sariak haundiak izan ziren, gehiago inork beste sariketa ez txapelketarik jartzen ausartu* ere ez egiteko ainakoak*, eta gehienbat Lasartegatik.

Nola edo hala, antolatzaileek Lasarte eroan nahi eben, eta, nonbait, Lasarteri diru asko eman behar jakon.

Ene ustez, sariketa honek ez eutsan mesederik egin bertsolaritzari, ez eta bertsolariei ere. Norbaitek omenaldi hori zergatik antolatu izan dan aditzera eman arte, kezka jarraituko dot.

DEUNORO

«II Semana de Antropología Vasca» Bilbon

Apirilaren 19tik 24erarte ospatzen da Bilbon, Deustuko Unibertsidadean, «II Semana de Antropología Vasca» dalakoa.

19an, 7,40etan, «Symbolica Amatoria», Jean Haritschelhar-ek. 8,30etan, «Arteta, Pintor Vasco y Europeo», Luis Lazarok.

20an, 7,30etan, «Euskeraren irakaspidea eta euskera irakaspide», mahai biribila, euskeraz nahiz erderaz: Luis Villasante mahaiburu, Luis Mitxelena eratzaille, mahaikideak Patxi Altuna, Josu Arenaza, Eusebio Erkiaga, Xabier Gereño, Alfonso Irigoien, Jesus Oleaga, Xabier Kintana, Martin Ugalde eta Justo Mokoroa.

21ean, 7,30etan, «Escultores del siglo XVI en el País Vasco», Maria Arrazolak. 8,30etan, «El txistu y el silbote», Francisco Escuderok.

22an, 7,30etan, mahai biribila, «El derecho privado vasco-navarro ante la codificación», mahaiburu González del Valle eta eratzaille Adrian Celaya direlarik.

23an, 7,30etan, «Condiciones del futuro socio-económico de Vizcaya», Jesús Doraok. 8,30etan, «La cultura vasca en el mundo contemporáneo», Jose Migel Azaolak.

24ean, 7,30etan, mahai biribila, «La romanización del País Vasco», Jose Migel Barandiaran mahaiburu eta Ignacio Barandiaran eratzaille direlarik. 10etan, jendeak bidalduta idazlanak irakurriko dira. 12etan, «In memoriam», Julio de Urkixori buruz, Juan Ramon de Urkixok eta Manuel Lekuonak.

Joango gara, eta ikusiko dogu!

Euskal kantak Hazparden

Lapurdikoa Hazparden ospatu izan da euskal kantarien beste jaialdi bat, joan dan martxoaren 27an, jarraiko kantari honek ari* zirela: Ospital, Carrère, Sarasola, Borda, Eñaut, Etxemendi, Larralde, Julen Lekuona (aspaldi beste aldera ihesia) eta «Oskarbi» taldea. Jaialdi honetan batutako sarak ikastolei laguntzeko izan dira.

LASARTERI OMENALDIA DONOSTIAN

Martxoaren 19an, San Jose egunarekin, Donostiako Astoria antzokian*, omenaldi eder gogoangarri bat eskaini dio Euskal Herriak, Leitzaan (Nafarroan) sortua den Lasarte bertsolariari.

Urtero Astorian biltzen diren entzuleek, beren ustez egokiena den bertsolari bat hautatzen dute, omenaldi bat eskaintzeko. (Aurten Mattin hautatu dute). Eta, aurretik Uztapide eta Xalbador ospatu ondoren, joan den urtean Lasarte aukeratu zuten aurtengo omenaldirako. Ezin aukera egokiagorik izan, benetan!

Lasarte ez da, bakarrik, Euskal Herriko bertsolarietan ezagunetakorik bat. Lasarte da, gainera, aita Zabalak dioen bezala, «Euskal Herriak maite duen gizona».

Antzokia gainezka

Ez da, beraz*, harritzeko, San Jose egunarekin, Astoria gainezka ikustea Euskal Herriko bazter guztietatik etorri zen jendearekin, Lasarteren omenaldi horretan parte hartu nahian.

Zoritxarrez, hain urrutitik etorri ziren asko ta asko, kalean gelditu ziren, ezin sarturik, sarrerak hiru edo lau egun aurretik agortu zirelako. Tamala benetan!

Aurten, segur gara, edozein pelota leku leporaino beteko zen; eta Lasartek ez zeun kalterik izango, biltzen ziren sarak beretzat baitziren. Baina nork pentsa, horrelako jende bolada izango zenik!

Lasarte, bertsolari

Lasarte, bertsolari eta gizon, goigoiko neurri berekoa dugu.

Lasarteren bertsok ez dira ez luzatzen ez moztzen: kantauk eskatzen duen neurri zorrotza, zuzen gordetzen dutenak dira. Lasarteri, anka okerreko bertsorik ez diogu entzungo; eta bere pentsaketa eta esannahiak, behar diren hitzekin, ez bat gehiago ez gutiago, garbi agertuko ditu. Ez da meritu makala!

Horretaz gainera, Lasarteren bertsok, denak edo gehienak, zerbait erakusten daukutenak dira. Bakoitza bere garaiko bertsoa izango da. Tokia eta jendea ondo neurtzen dakielako.

Lasartek, hala beharrez, bere ateraldi irrigarriekin algarra batean jarriko gaitu, edo sendimendu ukigarri* batzuekin bihozberatuko.

Ikusten denez, horixe gertatu zen Astorian, berak eskerrak emateko bota zituen lau bertsoekin. Zoritxarrez, guk garai horretako etxeratu behar izan genuen; baina, Basarrik dioenez, «txalo zapparrekin, lur jo behar zuela zirudien Astoriak».

Lasartek esana du:

«baina mi'ingainez ezin det esan
bihotzak na'i duenikan».

Astorian, nonbait, mihingainak ondo erantzun zion, entzuleen gozagarrirako.

Lasarte, gizon

Maitagarria benetan: apala, ixila, gaitzarekin burrukan ibili behar izan duen, trixte antzeko, gizona.

Berak kantatua du:

«inori gaizki hitz egiteko,
Lasartek ez du barrenik».

Hori da Lasarte, gizon eta bertsolari.

Urte askotako bizitza osasuntsu bat opa diogu, Nafarroa eta Euskal Herriarekin batera gure euskera zaintzeko. Berak esan baitzuen:

«euskera ez da galduko,
gu bizi bagera».

HERNANDORENA

«Ama Lur» Madrilan

Baimena lortzeko eragozpen haundiak izan ondoren, «Ama Lur» euskaldun filmea ikusia izan da, «Colegio Mayor León XIII» dalakoan, Madrilan, martxoaren 28an.

Kolejio honetan igandero meza bat izaten da euskeraz, eta bertara biltzen dira Madrilako euskaldun asko. Euskaldunokatik batez ere emana izan da filme hau. Sarrerak dohan*. Madrilako euskaldun gazteek lan haundia egiten dihardue, kultura aldetik bereziki.

Jose Luis Merino jaunaren mintzaldia

Jose Luis Merino jaunak mintzaldi bat eman izan dau Eibarren, joan dan martxoaren 27an, euskal kultura eta eskulturari buruz.